



ARGIA

IVAN MIRÓ:
"KATALUNIAREN
INDEPENDENTZIA
EZ DA HELBURU,
GIZARTEA ERALDATZEKO
BITARTEKO BAIZIK"

PIO MONTEANO
HISTORIALARIA:
"NAFARREN %80AK
EUSKARAZ
HITZ EGITEN ZUELA
ONDORIOZTATU DUGU"

MARÍA JOSÉ PIZARRO:
"GERRAREN DINAMIKAK
EZ DIRA ALDATU
KOLONBIAN"

**"Bizitza zaila
izan dugulako,
umea kentzea
merezi dugu?"**


**ADMINISTRAZIOAK HAURRA
KENDU DIEN GURASOEN GARRASIA**



Jakoba Errekondoren liburu berria
Antton Olariagaren ilustrazioekin

LANDAREAK LANTZEN

2018ko ZURE LANETARAKO AGENDA



Hemen duzu urte osoan
egin beharreko lanen
egutegia, **saso**i bakoitzari,
hilabete bakoitzari eta
ilargialdiari lotuta:
baratzean, fruitu arboletan,
lorategietan eta basoan.

Lan hauek noiz eta nola egin
ditugun jasotzeko aukera
ematen du agenda honek.

**LIBURUA
ESKURATZEKO***

943 371 545
denda@argia.eus
www.argia.eus/denda



*Jakoba Errekondok sinatzeko aukera

PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6-9 Aktualitatea
- 7 Fauna publikoa
- 10 Net Hurbil: Nork sendotuko du agintea Txinan?

IRITZIAK

- 17 June Fernández
- 18 Enrike Diez de Ultzurrun
- 19 Mikel Basabe
Itxaro Borda



Ekonomia sozial eraldatzailan dabil Ivan Miró bartzelonarra. Kataluniaren independentzia eraldaketarako tresna da haren ustez. (ARGAZKIA: VICTOR SERRI)

- 37 DENBORAREN MAKINA
- 38 BIZI BARATZEA
- 40 ARGIA KOMUNITATEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENENKO EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA:
ONINTZA ODRIÓZOLA
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA: DANI BLANCO

SAKONEAN

- 12 | Gontzal Fontaneda: "Carabancheleko kartzelan onartu genuen guk euskara batua" / Miel A. Elustondo
- 20 | Haurren zaintza: "Diputazioak umeak lapurtu dizkigu" / Mikel Garcia Idiakez
- 26 | Ivan Miró Acedo: "Errepublikat bat ez da aldarrikatzen, eraiki egiten da" / Estitxu Eizagirre Kerejeta
- 32 | Peio Monteano: "Euskara Nafarroako historian funtsezkoa izan da, eta bada" / Ane Eslava Serrano
- 34 | María José Pizarro: "Gerrillaz mintzatzea ia tabua da Kolonbian" / Jabi Zabala
- 42 | Euskadi Sariak hamar urtez linboan / Gorka Bereziartua Mitxelena
- 45 | Arte iruzkina: Erlea Maneros Zabala / Xabier Gantzarain
- 46 | Zergatik den astakeria hutsa espainiar kateetan atzerriko telesailak ikustea / Gaizka Izagirre

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERRATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**



Gipuzkoako Foru Aldundia



DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU, GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea.

Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre.

Erredakzioa: Andoni Mikelarena, Axier Lopez, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Miren Osa, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.

Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco. **Produktzioa:** Antza S.A.L.

Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Loarte, Marijo Aiertza.

Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.

Idazkaritza: Aloña Sorraluze, Bego Zuza. **Web garapena:** Asier Iturralde.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545.

Lapuri, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.

Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.

Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetak: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus. Interneten: www.argia.eus.

Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.

Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

ARGIA KIDETZA:

Kidetza harpidetzari lotuta egon beharrean, ARGIA komunikazio proiektua indartzera dago lotuta. Partikular eta kolektiboek, ahal duten eta egokitzat duten ekarpen ekonomikoak eginaz, ARGIA argitaratzen dituen kazetaritza lanak (aldizkaria, Larun, Aktualitatearen Gakoak) jasotzeko aukera izango dute. Batez beste, ARGIA Jendeak 12,50 € jartzen ditu hilean proiektua indartzeko.

Erakunde publikoen kasuan, ohiko sistemari eusten diogu. Harpidetza tarifak: ARGIA astero (150 € urtean), ARGIA hamabostean behin (80 € urtean) eta ARGIA hilean behin (42 € urtean).

Alfredo

Larunbatean beste pertsona batek potoldu zuen preso politikoen zerrenda luzea: Alfredo Ramirez amurriarrak. Politikoa da bere espetxealdia, asmo politikoa daudelako bera urtebetez itzalpera bidaltzea posible egiten duen legean. Twitterrez idatzitako iritziak kode penalez zigortzea, politikari batzuek hala eskatuta da egun "legezko". Eta, herriko festetan, umorez eta inori kalterik egin gabe, sakabanaketa politika ankerra salatzea kartzelan sarrarazteko adina motibo izatea ahalbidetzen duen salbuespen legedia ere bada interes politiko jakin batzuen araberakoa. Gaur, 2017an. "Elkarbizitza eta bakea" dioen pankartaren atzean politikarien gehiengoa jartzen den garaiotan.

Argazkia: Ekinklik Argazkilariak · Testua: Axier Lopez





44.000 pertsona (*Gararen arabera*) bildu dira Bilbon, Katalunian 155. artikulua ezartzearen aurka. Manifestua irakurri dute manifestazio amaieran:



“Hitz ematen dugu PP-PSOE-Ciudadanos ententearen joera autoritario eta antidemokratikoari aurre egingo diogula; 155. artikulua aplikazioa mugarri historiko bat izan da”



“Fiskaltzak eta epaileek botere politikoaren luzapen soil gisa jokatzeko dute, aldarri batek eraginda: *A por ellos*”



“Eskalada errepresibo hau ez da Kataluniara mugatzen; aitzitik, askatasun demokratikoak Estatu guztian zehar murritzuko ditu, eta Euskal Herriari ere eraso egingo diote”



“Gu subjektu politiko legitimatu bat gara, eta muga bakarra euskal herritarren ariketa demokratikoa izan behar da”



21.000 lagunek bozkatu dute herri kontsultetan

Miren Osa Galdona
@Mirentx_U

21.027 herritarrek bozkatu dute Gure Esku Dago plataformak hamahiru herritan antolatutako galdeketa, batez beste eskubidea zutenen %13k.

Emakumeak izan ziren bozkatzen lehenak. Modu horretan, Gure Esku Dagok 1933ko azaroaren 5ean lehen aldiz bozkatu zuten emakumeak omendu nahi izan zituen. Egunak aurrera egin ahala, herritarrak, hainbat eragiletako ordezkariak eta politikariak pasa dira hauteslekuetatik. Unai Rementeria Bizkaiko Foru Aldundiko ahaldu nagusia, besteak beste. Bestalde, Katalunian urriaren 1eko erreferendumean bederatzi herritan erabili zituzten hautetsontziak jarri dituzte, “elkartasun keinu” moduan.

Galderak honakoak izan dira: “Herri burujabe bateko herritar izan nahi duzu?”, “Euskal Herri independente bateko herritar izan nahi duzu?” eta “Euskal herritarrek euren etorkizun politikoa euren kabuz eta modu askean erabakitzea nahi duzu?”. Bozkatu dutenen %95,22k baietz erantzun diete galdera horiei.

Parte-hartzea hau izan da: Andoainen %16,5, Areatzan %45, Atxondon %31, Beizaman %44, Berangon %16, Erandion %10, Elantxoben %53, Galdakaon %13, Getxon %11, Mundakan %41, Ibarrangelun %57, Leioan %9, eta Otxandion %47.

Zelai Nikolas bozeramaileak adierazi du izugarria dela lortzen ari direna. “Emaitzak gorabehera, mesfidantzak uxatzen eta konplizitateak josten ari gara”. Jarraitu beharreko bidea hori dela nabarmendu du; “desberdinen artean lan egiten”.

“Autodeterminazio erreferendumaren zilegitasuna bermatzen digun akordioa lortu dugu”

EDOUARD PHILIPPE, KALDONIA BERRIKO LEHEN MINISTROA

Erreferendum adostua egiteko akordio politikoa lortu dute Frantziako Gobernuak eta Kaledonia Berriak. Frantziako kolonia izaten jarraitu nahi duten ala ez erabakitzeko galdeketa egingo zaie Kaledonia Berriko herritarrei, eta data zehatza ez dute finkatu baina beranduenez 2018ko azaroan izango da. “Akordio politikoaz gain, konfiantza lortu dugu”, adierazi du Edouard Philippe lehen ministroak. **TWITTER (2017-11-03)**



FAUNA PUBLIKOA

**“Andaluziarra
izanik ere, ni baino
edukatuagoa zara”**

**Odon Elorzak (PSOE) Noelia Vera
Podemoseko diputatuari (La Sexta)**

Donostiako faraioiaren klasismoa



Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligorria

Pitote ederra daukate Elorza bezalako PSOEko sanchez-
kiek alderdiaren Andaluziako fakzioarekin, gerra zibil do-
mestiko bat, otorduetan ostikoak mahai azpitik, “lantzana”
hitzarekin gozatuta datozen akusazio larriak, antzeppen
afektatuak, telenobela baterako osagaiak –izan ere, bada
uste duenik Pedro Sanchez sinesgarriagoa litzatekeela ak-
tore venezuelar gisa-. Baina gauza bat da problema hori,
ados, Andaluzian lokalizatua, baina etxekoa; eta beste bat
andaluziar guztiak. Eta haien edukazioa. Edo edukazio falta.

Zer adierazi nahi zuen Elorzak? Nahiko argi dago anda-
luziar inkultuaren estereotipoa atera zitzaiola itsu-itsuan;
alegia, klixe tamalgarri bat, politikari batek inoiz erabili
behar ez lukeena. Baina erabili duenez, aztertu behar dena,
ulertzeko zer materialez osatuta dagoen Donostiako alkate
ohiaren pentsaera.

Prime time-an 8 milioi pertsonaren heziera ona auzitan
jartzeko kapaz denak injeztatuta dauka ideia bat: bizi-
-maila altuko eskualde batean hezi izanak pertsona hobe
bihurtzen zaituela automatikoki. Ez baitago klase sozialik
jada, listoak eta tontoak baizik; kultuak eta inkultuak; eta
donostiarrak edukatuak badira eta cadiztarrak ez, ba zer
egingo zaio, gauzak horrela dira eta ni zure gainetik nago.

Modu horretan pentsatzen duena, noski, oso klasista da.

Grazia ere badauka asuntoak, segun eta nondik begi-
ratzen zaion. Kontuan izan euskal gatazkaren *hit soziata*
nagusietako bat izan zela seinalatzea nazionalista euskal-
dunek Espainiako hegoaldetik etorritako langileak bazter-
tzen zituztela. Argiago ikusten da orain: erretorika hutsa
zen, jende oso elitistak langile horiek zakuratu nahian era-
bilitakoa. ■

**EZ
HANKA
EZ
BURU!**



ZUZENEAN BARTZELONATIK...



ADUR

ANALISIA



Itsas mailaren igoeragatik arrisku larrian dagoen Fiji izango da aurtengo klimaren gailurraren presidentea, bilera Bonnen (Alemania) egingo bada ere.

Gailurrez gailur, klima hondamendirantz



Unai Brea
@unaibrea

Kontraste ikaragarria dago klima aldaketaren ondorioak biderkatuz doazen abiadaren eta haiei aurre egiteko neurriak zehazteko orduan gobernuak agertzen duten patxadaren artean. Erregistratutako urakanik bortitzenak bizi izan berri ditugun honetan, urte bakoitza inoiz neurtutako beroena dela, atmosferako CO2 kontzentrazioak langa historikoa jota... urteroko klimaren goi-bilera hasi da azaroaren 6an Bonnen, hau ere, beste asko bezala, trantsiziozkoa-edo, helburu nagusitzat baitu 2015ean Parisen sinatutako akordioa martxan jartze aldera irizpide komun batzuk finkatzea, 2018rako prest behar lukeen "arau-liburu" moduko batean jasota.

Oro har goi-bilera "teknikotzat" jo dute analistek COP23 hau, eta hala ere sinbolismoz beteta dago. Lehen aldiz, klima aldaketaren mehatxua larrien jasaten duen estatu batek du presidentzia: Fiji Uharteak. Bilera Bonnen egitearen arrazoia ez da igartzeko zaila: Fijik ez du azpiegiturarik tamaina horretako ekitaldi bat -20.000 lagun espero dira- jasotzeko. Bide honetatik jarraituz gero, baliteke laster inolako azpiegiturarik ez egitea, ez handi ez txiki.

NBEk ohartarazi die munduko gobernuei hobe luketela premiaz ibili, orain arte hartutako konpromisoak ez dira-eta nahikoa Parisen adostutako helburuak betetzeko. Zehazkiago, aurkeztutako konpromisoekin 2030erako beharko litzatekeen emisio murrizketaren herena baino ez da lortuko.

Askok salatu dutenez, arazoa da Paris-ko Hitzarmena handinahia dela helburuetan, baina ahula mekanismoetan. Erakusle nagusia, 2017ko gailur honetan, AEBak izango dira. Trumpek iragarri arren Paris-ko Hitzarmenetik aterako duela bere herrialdea, 2020ra arte akordioaren parte da munduko bigarren berotegi-gas igorle handiena, eta negoziazioetara joaten jarraituko du. Nolanahi, *de facto* akordiotik kanpo daude AEBak, azken baten Paris-ko Hitzarmenaren oinarriak konpromiso boluntarioak baitira. Alegia, Trumpek ez du ezertxo ere egingo arazoa arintzeko. Inork ez du horretara behartzen. Fijik du COP23aren buruzagitzat, baina soluzioaren giltza beste batzuen esku dago, eta bistan da ez dutela asmo handirik honaino ekarri gaituen jokabidea sakonki aldatzeko.

EKONOMIAREN TALAIAN

Emakume grebalari eta intsumisoak



Juan Mari Arregi

Euskal Herrian, beste herri askotan bezala, greba ugari izan da historian zehar, aldarrikapen ekonomiko, laboral, sozial eta politikoak helburu. Oraintxe bertan badira hainbat greba martxan, enpresen itxierak direla-eta lanpostuak defendatzeko. Ez dira gutxi pentsatzen dutenak greba eginez denbora eta dirua baizik ez dela galtzen, ez dela ezer lortzen. Baina errealitateak berriz ere beste zerbait erakutsi digu. Bizkaiko zahar etxeetako grebalariek ia bi urtez erakutsitako irmotasuna, erresistentzia, duintasuna, antolaketak, koordinazioa eta intsumisioa dira horren adibide. Erakutsi dute greba dela kapitalaren aurrean belaunikatzen ez den giza duintasunaren espresioa, eta horrez gain, efikaza bezain errentagarria ere izan daitekeela.

Sektore honek intsumisioa eraman du aurrera, ez da patronalaren eta Bizkaiko Aldundiaren xantaien aurrean kikildu, eta azkenean bi urtez mobilizatzen eta greban ibili ondoren, behar bezalako akordioa lortu dute, euren aldarrikapen ia guztiak betetzen dituenak: lan-hitzarmenak 2020 arte irautea, hilean 140 euro gehiago jasotzea, urtean 200 ordu gutxiago lan egitea, lan istripua gertatuz gero edo laneko gaitortasunen bat izanez gero ekonomikoki ez zigortzea soldataren %100 kobratuz...

Nabarmentzekoa da greba hau ia gehienera emakumeek egin dutela. Nabardura garrantzitsua da, garaipen ekonomiko eta sozialaz gain, garaipen feminista ere badelako; sistemak otzan eta isilik nahi baitzituen. Greba luze eta eragin-korrarekin menderakaitz bihurtu dira patronalaren eta Aldundiaren presioaren aurrean. Irakasgai ederra gizonontzat!



EKINKLIK

Tren sozialaren alde

IRUÑEA. Abiadura Handiko Trenaren aurka eta tren sozialaren aldeko bizikleta martxa egin dute Iruñean. Martxan zehar, "tren jasangarri, herrikoi eta demokratikoa" aldarrikatu dute. Aldi berean, helburu berarekin hilaren 11n egingo den manifestaziora ere deitu dute bizikleta martxan parte hartutakoek. Iruñeko Gazteluko plazatik abiatuko da, "Trena bai, AHT ez. Herriak erabaki" goiburupean.

Salbuespen neurriak lege arrunt bihurtzeko lanean

Andoni Mikelarena
@andonimik

Orain arte salbuespen neurriak zirenak, orain arrunt bilakatu nahi ditu Frantziako Gobernuak, legebiltzarrean eztabaidatzen ari diren Barne Segurtasun lege berriaren bidez. Hala ondorioztatu du Jakes Bortairuk *Enbata* agerkarian.

Atentatuen ondorena

Frantziako Estatuan gertaturiko atentatuen ondoren segurtasun politika zorroztu du Gobernuak. Amnesty Internazionalak salatu du 155 manifestazio debekatu eta 639 herri-tarri manifestazioetan parte hartzea galarazi zaiela, besteak beste.

Neurriak

Hala nola, Justiziaren esku-hartzerik gabe poliziak edozein kontrol egin ahalko du "terrorismo mehatxupear" dauden "babes eremuetan". Mugetako nortasun kontrol masiboak ere, aireportu, portu eta geltoki guztietara zabalduko dituzte.

Boterekeria

Zenbait ekintzaile eta epaileren ustez, frogan ordez susmoak bilaka daitezke kondena baten oinarria. "Erregimen aldaketa da, V. Errepublikan ez zen sekula hainbeste botere bildu Gobernuaren eskuetan", dio Frantziako Giza Eskubideen Ligak.

ELIKADURA



%20

murritz nahi du gatz eta azukre kontsumoa Eusko Jaurlaritzak hiru urtean. Kanpaina abiatu du horretarako. Gazteen %51k ez du egunero frutarik eta %82k barazkirik jaten.

90.000 umek bazkaltzen dute egunero eskolan, EAEn. Jangelen kudeaketa esleitzeko baldintzetan aldaketak izango direla iragarri dute.



3. LAUKITXOA

"Gizona" eta "emakumea" aukerei, hirugarren laukitxo bat gehituko die EHUK. Sexu aniztasuna eta pluraltasuna errespetatze aldera, bere inprimakietan generoaz galdetzean "beste aukera batzuk" edo "ez binarioa" laukitxo ere azalduko da hemendik aurrera.



"ERREMENTARI"

Patxi errementariaren ipuin klasikoa berreskuratzen duen *Errementari* euskal filma izan da ikusleen gustukoena (8,34ko notarekin) eta beraz, Paul Urkijoren lanak irabazi du Donostiako Fantasiako eta Beldurrezko 28. Astea.



SAN MARKO

Atez Atekoan ari ziren sei herrik San Marko Mankomunitateko 2014ko aurrekontuak errekurritu zituzten, derrigortzen zituelako edukiontzi bidezko bilketaren ordainketan parte hartzea. Espainiako Auzitegi Gorenak arrazoi eman die.

Xi Jinpingekin Txinan belaunaldi berezi batek sendotu nahi du agintea



Pello Zubiria Kamino
@pellozubiria

Txinako Alderdi Komunistaren azken biltzarrak Mao Zedongen pare ipini du Xi Jinping, honen pentsamendua *Lemazain Handi* harena bezala ikasiko delarik eskoletan. Alderdiko idazkari nagusi, errepublikako lehendakari, armadaren buru... ulertu behar da Xi Jinpinggek bere eskuetan bildu dituela Txinako botere guztiak? Munduko herrialderik handieneko aginte jokoak hainbat ikuspegitik analizatu daitezke. Belaunaldien dinamikatik aztertzeak, esaterako, asko balio dezake.

Jean-Louis Rocca (1957) soziologo eta ekonomialaria irakasle da Parisko *Sciences Po* (zientzia politikoak) fakultatean, Beijingeko Tsinghua unibertsitatean zazpi urtez eskola emana da eta hainbat liburu dauzka idatzita Txinako gizarteaz eta politikaz. Uneotan bere ikerlanen gaia da "Txinako klase ertainak: kontestazio soziala eta demokratizatzeari buruzko eztabaida".

Txinera ere menderatzen duen Roccak bi artikulu mamitsu plazaratu ditu aurretik *Le Monde Diplomatique*n, azkena Alderdi Komunistaren Txinatarren biltzarren bezperetan: "Baina zer nahi du Xi Jinpinggek?". Bertan proposatzen digu Txinari buruz zabaldu diren klitxeak aparkatu eta belaunaldien ikuspegitik aztertzea han gertatzen dena, hau da, aginte ekonomikoa eta politikoa gaur bere eskuetan dauzkan belaunaldiaren ezaugarrien arabera. Ondoko leurrek Roccarena laburbildu nahi dute.

Zergatik belaunaldien analisia? "Klase sozial batean sozializatzeko pertsona bat moldatzen duen bezala -oinezko ibilkeran bezala jokabide politikoan- esperientzia berdinak eduki dituen belaunaldi batekoa izateak laguntzen du modu bateko pertsona izaten. Honetan ereduak da Txinako elitearen kasua. Arlo guztietan, ekonomian, artean, akademian eta, noski, politikan, oso belaunaldi berezi batek dauzka gaur bere eskuetan boterearen giderrak, Xi Jinping lehendakariaren ibilbideak erakusten duenez".

1953an Alderdi Komunistako goi koardoen familia batean sortutako ume pribilegiaduna, 1966-1971 urteetako Iraultza Kulturalen gogor zigortua izan zen bere familiarekin batera. Zerutik infernura une batetik bestera, asko aipatu dira Xi Jinpingen haurtzaroko trauma horiek. Hala ere, ekaitza baretu bezain laster joan ahal izan zen unibertsitate-ra, ondoren Alderdian karrera politikoa egiten hasteko... gailurra jo arte.

Gaur Txinan 60-70 urteren bueltan dabilen eliteko jende gehienek beren soin eta ariman izaeraren osagai bihurtuta daramatzate garai nahasi haiek utzitako orbainak, batez ere iraultzaileen lehen belaunaldikoen ume direnek, gorri jaio direla-eta sehaskatik dagokielakoan Txinaren buruzagietarik izateko eskubidea.

Belaunaldi honek gehien estimatzen duen balioa egonkortasuna da. Hezkuntzan ikasiagatik baina batik bat Iraultza Kulturalen beren larrian nozitu izanagatik, ez da ezer gehiago kezkatzen dituenik liskar politikoak baino. Horregatik, Txinaren modernizazioak behar du elite modernoa, arrazionala eta... autoritarioa.

Bigarren ezaugarria, modernizazioa behar da Txinari bere loria berreskuratzeke. Modernizazioa, helburu nazionalistaz. Honetan, ordenaren obsesioan bezala, elite honek jarraipena ematen dio XX. mende osoan Txinako agintari nagusiek markatutako bideari. Txina munduaren erdian kokatu nahi dute be-




rriri. Nahiz eta etnozentrismo honek berekin dakarren Txinaren gaur eguneko arazo larri bat: atzerrian gertatzen denaren ezezagutza handia.

Beste balio zentral bat: lagunen sareak, taldeak, mundu ezegonkor eta arriskutsu batean bizirauteko hil ala bizikoak. Xi Jinpingen kasuan, bere karreraren hasieran Fujian eta Zhejiang probintzietan antolatutako adiskide eta laguntzaile sarearekin iritsi da lehendakariaraino.

Aginte indartsu batek aurpegia behar

90eko hamarkadatik, eliteak gero eta gehiago internazionalizatu dira: haien balioak gero eta gehiago dira nazioarteko eliteenak, atzerrian dauzkate diruak eta ondasunak, haurrak AEBetara edo Europara bidaltzen dituzte ikastera, baita bizitzera ere. Oraingoz hau ez da kontraesan sartu Alderdi Komunistaren eredu teknokratarekin, baina noiz arte izango dira eliteontzako uztargarri nazioarteko kapitalaren agenda jarraitzea eta Txinarekiko leialtasuna?

Kontraesanon erdian nazioaren sustaia aldarrikatzeko, eliteak hesi barruan atxikitzeke, ustelkeriaren aurka borroka oinarritzeko arma bihurtu da. Alderdiaren ordezkari, estatuaren goi funtzionario eta negozioetako gizona izatea bereizten ez diren eskema batean, denei ezartzen zaie herriarekiko eta alderdiarekiko leialtasuna. Ustelkeriaren kontrako borroka, zalantzarik gabe, tresna egokia gertatzen da arerio



Press Association agentziak zabalduko argazkian, Alderdi Komunistaren buruzagitza osatzen duten zazpi nagusiak, erdian dutela Xi Jinping (64 urte). Gainerako seiak dira: Li Keqiang (62) lehen ministroa, Li Zhanshu (67) bulego politikoko burua, Wang Yang (62) lehen ministrordea, Wang Huning (62) alderdiaren buru teoriko nagusia, Zho Leji (60) barne antolakuntza arduraduna, eta Han Zheng (63) alderdiaren Shangaiko buruzagia. Horra Txinan agintzen duen belaunaldiaren argazkia.

politikoa suntsitzeko. Baina bada kontrol tresna ere, ororen gainetik ezartzeko taldearekiko leialtasuna.

Modernizazioak kaltetu dituen jende eta taldeen protestak onartzen ditu Txinako eliteak, baldin eta kexuak mugatzen badira etxe barruko arazo zehatzetara, erregimena auzitan jarri gabe. Txinako bazter askotan, kutsadura noztzen duten herri eta fabrika inguruetan esaterako, ohikoak bihurtu dira protestak, halako usina itxi dezaten, soldata igoerak eskatzeko... *interesak* defenditzeko. Agintariek badauzkate moduak horiekin negoziatzeko. Alabaina, *interes* horien inguruan antolatu nahi baldin badira sindikatu edo elkarteak, orduan errepresioak ez du gupidarik. Zer esanik ez bestelako disidentzia batez ari bagara, Txinako elitea eta sistema osoa auzitan jarri nahi duen disidentzia poli-

tikoaz: honek gorputz sozialetik kanporatua izatea dakar.

Koadro orokor honetan, Xi Jinpinggek jokatzen duen papera oso urruti ikusten du Jean-Louis Roccak mendebaldeko prentsak berataz egindako iruditik. Aginte zentralaren eta kontrol ideologikoaren indartzea, alderdiaren idazkari nagusiari dagokion lidergoa nabarmentzea, disidenteen zampaketa gogorrakoa, horrek guztiak ez du berresten botere pertsonal bat bazik eta alderantzizkoa, eliteen arteko kontsentsua azaleratzen du. Funtsean, egonkortasun sozial eta politikoak behar dute alderdiarekiko leialtasuna indartzea eta horri aurpegi bat jarri behar zaio. Gaur egun Xi Jinping da aurpegi hori baina gerta liteke beste bat, estilo eta ezaugarri berekoak izanez gero. Zergatik aurpegi bat eta ez kolektibo bat? Dударik gabe garaiak

bere larritasuna daukala uste dutelako eta iraultzaileen umeak iritsi direnez agintea hartzeko adinera, funtsezkoa delako iraultzaren izpirituaren bertuteak berreskuratzea. Aurreko idazkari nagusia zen Hu Jintao bere aginte aldian bigunegi aritu dela uste izanik, Txinak behar duen aginte indartsua nabarmendu nahi izan dute berriro.

“Jaun eta jabe izateko –dio Roccak– Xi Jinpinggek beharko luke proiektu edo pentsamendu lerro bat Mao Zedong edo Deng Xiaopingek zituztenen mailakoa. Ez dauka. Bere politikak ez dute iraganekekin eteten, ez ustelkeriaren aurkako borrokan, ez Txinaren indarra sendotu nahian, ezta ere txirotasunaren eta ezberdintasunen kontrako borrokan”. Alderdi Komunistaren 2022ko biltzarrean ikusiko da ea bitartean indarra hartu duen hirugarren belaunaldiak. ■



50 urtez elkarrekin



**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Gontzal Fontaneda, gerra ondoan euskaltzale

«Carabancheleko kartzelan onartu genuen guk euskara batua»

Iragan mendeko 60ko hamarkadaren bihotzean euskarak Gasteizen egin zuen bidearen lekuko eta lagun izan zen. Kultur borroka beti bezain politikoa zen, eta horrela heldu zitzaizkion guardia zibilak beti bezain guardia zibil, eta sartu zuten zulora Euskal Herritik aparte.



Miel A. Elustondo

ARGAZKIAK: ZALDI ERO

Gasteizen jaioa zara, eta bertan hazia.

Herrandarren kalean, Gasteiz bukatzen zen alderdian. Bestalde, han zen Judimendi gaina, gasteiztarren arnasgunea, haraxe joaten ginen patata tortilla hartuta. Harantzago, Errepublikara garaian egindako etxeak ziren, “etxe merkeak”, gaur egun Estibalitz hiribideko txalet estimatuak direnak. Eta hantxe Maltzagatik Lizarrara zihoan trenaren geltokia ere. Eta besterik ez... Aita 4 urte nituela hila, ama alargun, lanean hasi zen Haur Lorategia izenekoa.

“Haur Lorategia”?

Bai. Espainiako Falangearen emakumeen saileko gizarte sorospena, esateko moduan. Gasteizko jenderik pobreenarentzako haurtzaindegia zen. Zenbat *Cara al sol* kantatu ote nuen han. Goizean, Espainiako bandera jasotzean, *Cara al sol*, eta arratsaldean, jaistean, berriz. Heziketari dagokionez, Franco eta Jose Antonio [Primo Rivera] guztiz presente zeuden han. Ama haurtzaindegiko sukaldari izan zen; beste zenbait langilerekin batera egiten zuen lan han.

Hura sukaldeko lanean, ni ume, haurtzaindegian. Gainerako umeak etxera joaten ziren arratsaldeko zazpitan. Ni, berriz, hantxe geratzen nintzen amarekin, berak lana bukatu arte. Eskolako adinean, Samaniego eskolara hasi nintzen. Bazkaltzeko garaian, nire lagunak etxera, eta ni Haur Lorategira beti.

Gerra ondoko bizimodua zuena.

Halaxe. Gero, maistra bat izan nuen, Teresa, itsua, kontuak eramateko ondoan hartu ninduen. Elkar asko maitatu genuen. Beraren bitartez, falangeko sail batek Jesusen Bihotza ikastetxean batxilergoa egiteko beka eman zidan, eta ikastetxe hartan gertatu zen nire baitako aldaketa. Batxilergoko bosgarren mailan ginen. Mahaikide nuen Ibarangeluko mutiko bat, Arrotegi deitura zuena. Eguberriak ostean, bata besteari oporretako berri kontatu geniolarik, Arrotegik bi pezetako txanpon bat erakutsi zidan. Alde batean, kapelu frigiari bat zuen emakume baten irudia ageri zuen, “Gobierno de Euzkadi” zioela. Nik, emakume hura Euzkadi ote zen

galdetu nion, eta berak txotxoloka eraso zidan. “Euzkadi euskaldun guztion aberria duk!”, esan zidan. Dena gaztelaniaz, jakina.

Gontzal Fontaneda Orille

Gasteiz, 1943

Garai bateko egoeraren lekuko da Gasteizen, gerra ondoko frankismoarena. Euskararen pizkundea bizi izan zuen, 1958ko euskarazko eskolak eta mugimendu haren eragileak. Banketxean lan eginez atera zuen bizia 1962az gero, nahiz eta euskara irakasle ere izan zen urte askoan. Fontaneda.net helbidean da interneten, non euskararen gramatikaren edukiak eta 2009an Oiongo Araba Euskaraz-en kariatara egindako dokumentala ere ageri baitira. Bloga abiaraztekoa da ARGIA n bertan.



Askoz geroago ikasi baitzenuen euskaraz.

Bai, eta garai eta giro hartan Gasteizen, bestela ere gaztelania zelako hizkuntza bakarra. Arrotegik hura esan zidan arte, aberri bakarra Espainia zelakoan nengoen ni. "Euskaldun guztion aberria"... Arrotegik ez zuen atertzen, Franco haizatu zuen, gobernuaren kontra altxatu zela eta hau eta hura. Ordu arte aditu nuenaren kontrakoa esan zidan hark.

Ordu arte ikasitakoa batetik, Arrotegik esan zizuna, bestetik.

Liburutegi publikora joanda erabaki nuen auzia. *Espasa* entziklopedia zuten, eta han dena zioen: Euzkadi, Espainiako Mugimendua, Uztailaren 18ko altxamendua... Oraindik liburutegian daukate entziklopedia. "Hau duk hau, Arrotegik arrazoi dik!". 1958ko urtarrilean ginen, eta urte hartako urrian euskaraz ikasten hasi nintzen.

1958an Gasteizen, Ramiro Maeztu Institutuko eskola haietan, orain EAEko legebiltzarra den horretan?

Bai, euskalduna izan behar nuela guztiz konbentzituta. Jakin nuen eskola haiek zirela eta joan nintzen. Batere arazorik, polizialik, ez zen izan. Peli Lopez Presa izan genuen irakasle, dozena bat ikasle ginela. Oso irakasle saiatua zen Peli, euskaltzale amorratua. Andoni Urresatarazu *Umandi*-ren gramatika erabiltzen zuen metodotzat. Bi urte egin eta hango eskolak bukatu zirenean, Peli Presak Jesus Langilea ikastetxera jotzeko esan zigun. Hurrena, Arte eta Langile Eskolan ere eman zituzten euskara eskolak... Gauzak mugitu egin ziren, aldatu.

Peli Lopez Presa beti irakasle zuek.

Jesus Langilea ikastetxean poliziaren bisita izan genuen, eta handik alde egin behar izan genuen, Peli Presaren etxera orduan. Peli bazituen laguntzaileak, Barrueta, Peli Martin Latorre... Eta gero, ni kartzelatik irten nintzenean, talde gehiago eta irakasle gehiago ziren. Gogoratzen naiz Gernikako bat ere bazela, Pertika, Kordoban erbesteratua eduki eta gero Gasteizen bizi zena. Haren autoak ere Kordobako matrikula zuen, eta jendeak kontra egiten zion: "Hi, andaluzak!". Berak, berriz, euskaraz isilarazten zituen.



Zeu ere irakasle izan zinen garai hartan.

Euskaraz jakin gabe hasi nintzen irakasten, 1966an. Elizbarrutiaren eskolan, orain unibertsitate campusean dagoen eskola horretan. Felipe Ibarraran zen han irakasle, baina soldadutzara joatekoa zen eta niri eskaini zidan eskola haiek ematea, eta zer edo zer banekieenez –askorik ez–, neuk zuzendu nuen talde hura urritik 1967ko ekainera. Ezin izan nuen kurtsoa amaitu, guardia zibilek harrapatu ninduten eta.

Euskaraz bazenekien.

Gutxi. Irakatsi ere, beharbada gaztelaniaz irakasten genuen. 70eko hamarkadaren hasieran Juan Bautista Gamiz irakasle taldea sortu zenean, orduan bai, euskarazko metodoa egin genuen. Eusebio Osa, Pako Eizagirre, Jeni Prieto... hainbat irakasle ginen. Metodoa egin genuen, geure erakoa: *Hizketan* zuen izena. Aditza eratzea –nor-nori-nork eta

beste–, neuk egin nuen; Eusebio Osak, testuak, langileak gora eta nagusiak behera; eta Maribel Elizondok jo zuen material hura makinaz. Aurretik, Umandiren gramatika, eta geroago, Patxi Altunaren *Euskerak, hire laguna!* izenekoak erabili genuen. Gogoratzen naiz ez genekiela zer zen "hire" hura, eta galdetu edo libururen batean begiratu behar izan genuela.

Esan diguzunez, ez zenuen zure estreinako irakasle urtea amaitu. Atxilotu egin zintuzten 1967ko ekainean.

Hemen San Vitor mendiko eguna ospatzen da uda atarian. Garai hartan, polizia ez zen mendira iristen eta urte hartan sekulakoa egin zuten EGikoek. Bateko ikurrina, besteko oihuak... Guardia zibila hara ez iritsita ere, baten batek ikusi zituen zertan zebiltzan gazte haiek, eta salatu. Eta bata eta bestea, jendea atxilotzen hasi ziren. PNVkoak



Kultura

“Guardia zibilak bigarren aldiz harrapatu ninduean, Estibalizko santutegira sartzen ikusi nindutela esan zidaten. Nik, baietz, bilera egin zela, baina kultur gaiak jorratu zirela han, bertan zela Isidro Baztarrika priorea ere, bilerak ez zuela ETArekin ez politikarekin ikustekorik. Eta egia zen”.

Sarerik ez

“Batzuk eta besteak ari ginen Gasteizen euskaraz irakasten garai hartan, baina ez genuen bata bestearen berririk. Aditua nuen Izaskun Arrue Zerkabarren kalean hurrei euskaraz irakasten ari zela, baina besterik ez. Esaterako, ez nuen inoiz Izaskun ezagutu”.

lehenik, eta gainerako guztiak ondoren. Ni ez nintzen mendian izan, baina atxilotuak jotzen hasi zirenean, izenak eskatzen, batek nirea esan zuen eta kito, atxilo eraman ninduten, beste askorekin batera. Hogeiren bat mutil, eta neska bat, barrura.

Beraiek esanda dakigu: mutil haien artean zen Jesus Estrada [ARGIA, 2.087 zbka.] eta neskari dagokionez, berriz, Arantxa Aretxandietaren [ARGIA, 2.105 zbka.].

Bai, Jesus Estrada zen bat. Jesusek eta beste batek Olarizu mendian zegoen telebista antena bat sabotageatu zuten futbol partida bat ematen ari ziren bitartean. Emisioa eten zuten, edo antena hondatu, behintzat!

Jipoitu egin zintuztetela esan zigun Jesus Estradak.

Bai. Jipoitu, denok. Hala ere, ez zen

izan gero ezagutuko genuen tortura: bainuontzia eta horiek. Ni, adibidez, gogotik jipoitu ninduten, baita kornel tenienteak berak ere. Barrua behar du, agintean eta jotzen. Jipoitu ez ezik, behatz artean taulatxo batzuk jarri eta estutu egiten zizkidaten. Hura mina, hura! Guardia zibilaren tortura ohikoa zen. Horrekin batera, presio psikologikoa. Haiek bazekiten ama alarguna nuela, eta esaten zidaten, kolpeka erasotzen zidaten bitartean: “Dena kontatzen ez badiguk, atxilo ekarriko diagu hire ama”. Bakea kaleko kartzelan eduki gintuzten atxilotu guztiok, behean gu, mutilok, eta goian Arantxa, bera bakarrik. Ekainaren 21ean harrapatu ninduten ni, eta abuztuaren lehenean behin-behinean libre utzi gintuzten guztiok. Hurrengo urtean, berriz, berriro atxilotu gintuzten, eta orduan ez nintzen hain erraz libratu, bigarren aldian nuelako.

1968an bigarren erorketa.

Bai, euskarazko meza esaten zen brigadetan, eta hantxe ibiltzen ginen Arantxa Aretxandietaren eta biok. Esana genion elkarri: “Gutako bat harrapatzen badute, besteak hobeto du ihesi joan”. Esan eta egin. Guardia zibilak nire bila etorri ziren, eta Arantxak alde. Bestalde, polizia Sabin Arana atxilotu zuenean, guardia zibilak sarekada egin zuen. Gu errete geunden ordurako, guardia zibilak aurreko urtetik zuen gure berri. Eta barrura 1968ko martxoan.

Gasteizko Olabide ikastolaren historia kontatzen duen liburuan Peli Martinek dio 1967-1968 ikasturtean ikastolaren ingurukoak bilerak egiten hasi zirela Estibalizko santutegian ikastolak, euskara, eta euskal kultura Araban sustatzeko asmoz. Baina martxoko bilera eta gero, han izandako bi lagun atxilotu zituztela eta bertan behera utzi zituztela bilera haiek.

Xabier Bareño Etxebarria eta biok. Hil zen Bareño, gernikarra, ETAko liberatua sasoi hartan. Nik harremana nuen Estibalizko priore Isidro Baztarrikarekin. Nire irakaslerik onena izan zen: *Nor-nori-nork, El secreto del verbo vasco* liburua eman zidan eta betiko izorratu ninduen. Kar, kar... Beharbada berak aipatuko zidan bilera egitekoak zirela, giroa aldatzen ari zela edo halakoren bat. Bestalde, garai hartan oso ohikoa zen Gasteizetik Estibalizera joatea, eta halaxe joan ginen Bareño eta biok, oinez.

Martxoaren lehenengo igandean izan zen bilera.

Eta handik laster etorri zitzaizkidan guardia zibilak banketxeko lanera. Kuartelillora eraman ninduten. Poliziak Sabin Arana eta Koldo Grajales harrapatu zituen. Guardia zibilek bazekiten non ibiltzen ginen, Ariznabarra auzoan bilera eginak ginen euskarazko eskolen inguruan. Bazuten gure berri. Harrapatu nindutenean Estibalizko bileren gainean ere galdetu zidaten, baina ETAkoa nintzela zen akusazioa. Sabin Arana gora eta behera ibili zitzaizkidan. Hura ez zen nire hirurkoko, ordea, eta ez nekien askorik. Bost axola haiei, ni kartzelara berriro. Nirekin batera atxilotuak behin-behineko askatasunaz atera ziren kartzelatik. Nik hiru urte eta erdi egin nituen kartzelan, eta ez nuen jakin zer izan zen Gasteizen bilera hura eta gero, ikastolak aurrera egin zuela besterik.



Guikuri
01138 Murua (Araba)
info@guikuri.com
www.guikuri.com

Telefonoak:
945 464 084
615 782 323 / 685 737 210



Tolosako Babarruna

BERTAKOAK
GUREAK
GOZOAK
KALITATEZKOAK

Hoberenak soilik
aukeratzen ditugulako

© 943 650 253
www.tolosakobabarruna.eus



Euskara batuaren auziak jo zintuen zu ere?

Bai, baina obedienteak ginen. Euskara batuarena Carabanchelen geundela lehertu zen. Aldizkari bat egiten genuen han, marrazkiak nireak. Carabanchelen izenordainak erabiltzeko tirria zuten: “¡Esa comida! ¡Ese Fontaneda!...”. Oihurik ezagunena, hala ere, “¡Esa cena!” zen. Eta, horrela, guk *Apari ori!* jarri genion izena aldizkariari. Hala ere, laster aldatu zen hura, *Afari hori!* izena hartu baitzuen. Alegia, hantxe aldatu zen euskara guretzat. Eta onartu genuen. Lagunartean, etxean, jolasean... ontzat ematen genuen nork bere euskara erabiltzea, euskalkiak eta beste, baina bestela, euskara batua behar genuen, beste hizkuntza guztiek bezala. Beharbada eztabaidaren bat izango zen, baina *Afari hori!* agertu zenean, onartuak genituen Euskaltzaindiaren erabakiak. Carabanchelen onartu genuen euskara batua.

1971n irten zinenean, zer giro zen Gasteizen?

Euskara taldeak egituratuak zeuden, irakasleak eta ikasleak. Politikari dagokionez, erreta nengoen, ETaren barneko zatiketa gauzatua zegoen –Jaeneko kartzelan geundela gertatu zen bosgarrenaren eta seigarrenaren artekoa–, Gasteizko kalean euskara gehiago entzuten zen –nahiz eta gutxi–, eta gainerakoan, aldaketa handirik ez nuen nik sumatu.

Hiru urte tarte txikia da ezer errotik aldatzeko, gertakari handiren bat ez bada, behintzat. Martxoaren hirukoak, adibidez, bai, gauzak aldarazi zituen. Gainerakoan, poliki-poliki aldatzen da gizartea.

Militatzen segitu zenuen.

1971n kartzelatik irtendakoan bai. ETA VI.ekoa nintzen, baina erreta geundeenok aparte biltzen ginen, erdi-militante ginen. 1975 aldera, Espainiako Langileen Alderdi PTERa sartu nintzen, eta 1979an, alderdiak bat egin zuen beste batekin, ORT [Langileen Alderdi Iraultzailea] izenekoarekin. Baina hark ere ez zuen luze iraun, 1980an desagertu baitzen. Orduantxe kito niretzat militantzia politikoa. Kartzelatik irten eta gero, eraikuntza-materialeko enpresa batean hasi nintzen lanean. Ezin izan nuen itzuli lehengo lanera, Banco Vizcaya, ze lehen kondena jaso eta hilabetera, kartzelan nengoela, eskutitza jaso nuen bankutik, esanez lanetik kanpo uzten nindutela. 1973an Lankide Aurrezkian hasi nintzen lanean, harik eta amnistia bat-edo eman zuten arte. Orduan, sindikatuen borroka eta gero, berriz hartu ninduten Banco Vizcayan, 1976an. Lankide Aurrezkia utzi eta lehengo Banco Vizcaya itzuli nintzen, duintasunez, eta duintasunagatik. Aspaldi utzi nion militatzeari, baina ez boto emateari. Beti ematen dut, garai batean boto ematerik ere ez zegoen eta. ■

Greenham Common



June Fernández

KAZETARIA

@marikazetari

Ba al zenekiten Ingalaterran milaka emakume feminista eta bakezaleek 19 urtez base militar bat okupatu zutela, 1981 eta 2000 urteen bitartean? Greenham Common Ameriketako Estatu Batuen (AEB) basea zen, Berkshiren kokatutakoa, eta NATOren aginduz han misil nuklearrak gordeko zirela salatzen hasi zen *Women for Life on Earth* (Lurrari Bizitzaren aldeko Emakumeak) taldeak.

1981eko irailean, 36 emakume harresian kateatu egin ziren. Hala ekin zioten urtebetez mantenduko zuten kanpamentuari. 1982ko irailean gobernu lokalak kanpalekua desagitea agindu zuen, baina emakumeek ez zuten amore eman. Abenduan *Embrace the base* ekitaldian 30.000 emakumek inguratu zuten basearen perimetrea. Baina hori ez zen ekitaldi jendetsuena izan; 1983. urtean 70.000 lagunek osatutako 23 kilometroko giza katea inguruko bi arma fabriketarako zabaldu zen.

Hamaika etxe huste eta atxilotetei aurre egin zieten. Inguruan kanpamentu berri bat ezarri, hainbat lagun basera sartu eta kanporatuak izan arte dantzan egiten zuten. Gerraren unibertso maskulinoaren aurrean, emakumeen kultura bakezalea eta zaintzei lotutakoa zela azpimarratzen zuten. Beste ekitaldi batean, partaide guztiak hartz pelutxez moztaratu ziren, gerraren mehatxuak haurren segurtasuna urratzen zuenaren mezua irudikatzeko.

1991n AEBek Greenham Commonetik misilak eraman zituztela eta 1993. urtean basea ixtea erabaki zen arren, emakume multzo baten presentzia mantendu zen 2000. urtera arte, landa hori publikoa bilakatu zedila eskatzeko eta, gerora, antimilitarismoaren memoria gune bezala finkatzeko.

Garaiko hedabideek mugimendu honen garrantzia zalantzan jarri zuten eta familia balore tradizionalak puskatzen zituzten sorgin talde baten karikatura

zabaldu zuten. Hauxe zioten: "Haurren segurtasunagatik kezkatuta bazeuden, zergatik ez ziren etxean seme-alabekin geratzen, ume eta guzti base militarrean iskanbila egitera joan ordez?". Etxekoandarearen ereduarekin apurtzea eta subjektu politiko bilakatzea zen emakume horien bekakoa.

The Guardian egunkariako artikulu batean Beban Kidron kazetariak dio emakumeen kanpamentuak aitortza eskasa izan duela, nahiz eta desobediencia zibilaren eredu paregabea izan. "Greenhamen emakume belaunaldi batek esparru publikoan bere ahotsa deskubritu zuen. Inklusibotasuna eta aniztasuna sustatzen zituzten, diskurtso nagusi bakarraren ordez, ikuspegi ugari zabalduz. Gehienek baino lehena go identifikatu zuten politikariek jende arruntaren interesak alde batera utzi eta gerrazale eta nazioarteko negozioen interesen alde egiten zutela".

Gertakari horrek gurean ere oihartzuna izan zuen. Euskal Herriko emakume asanbladetako hainbat kide Ingalaterrara joan ziren ekimen horretan parte hartzeko. Inspirazio horrekin 1986an, Eibarreko arma fabrikaren kontrako protesta feminista bat antolatu zuten, eraikinaren inguruan artilezko armiarma bat zabalduz. Begoña Zabalak *Movimiento de mujeres. Mujeres en movimiento* liburuan (Txalaparta argitaletxea) kontatzen du antimilitarismo eta borroka armatuaren inguruko eztabaida oso aberasgarria elikatu zuela mugimendu feministaren barnean. Pentsa, gure herriko testuinguruaz gain, 80ko hamarkadan Erdialdeko Amerikako iraultzen alde egin zuten euskal feministek. Aspaldi irakurri nuen liburua, hala ere, nire memoriatik desagertu egin ziren bai Greenham Common, bai Eibarreko protesta hori. Berrirori ere istorio hau ez ahaztea eta oihartzun berrietan parte-hartzea erabaki dut gaur. ■

1991n AEBek Greenham Commonetik misilak eraman zituztela eta 1993. urtean basea ixtea erabaki zen arren, emakume multzo baten presentzia mantendu zen 2000. urtera arte, landa hori publikoa bilakatu zedila eskatzeko eta, gerora, antimilitarismoaren memoria gune bezala finkatzeko

Sortaldeko haizeen karira

Urriak 31 ditu lerro hauek idazten ari naizenean, eta urriaren 1ean Katalunian behatzaile ibilitako euskal herritar franko harrituxe dabilta Errepublika aldarrikatu zenetik honat gertatutakoaz. Urriaren 1aren antzeko masa-ekimena espero zuten, hau da, jende olde handia karrikan Generalitatearen egoitzak babesteko, erreferendumaren egunean bozkalekuak nola, eta 155i arbuioa erakusteko. Zenbaitek, halaber, beren harridura erakutsi dute (sareak lekuko) independentziaren aldekoak abenduaren 21eko bozetan aurkeztuko omen direlako (Puigdemont larrutzetik gertu ibili zen baten bat, presidentak hauteskundeak deituko zituela zirudienean). Suhar itzuli baitziren Kataluniatik, hura herria, hura jendea, hura irmotasuna, herri oso bat ahaldundua, burujabetua, bere buruaren jabe egin da. Joan ez ginenok ere gogoan han izan genuen, arrunt hunkiturik, ikusitakoak ikusita. Ezagun independentziazale bat itzuli da Bartzelonara Errepublika ezarri ondoko lehen asteburuan. Mikaztu zaio egonaldia, Espainiako bandera kopuruari erreparatuta, eskuin muturrekoak lasai-lasai nola ibili diren ikusita, eta mugimendu independentistaren isiltasunak harrituta, “unionistak ere ahaldundu dira, eta karrikak ez dira gureak izan,



Enrike Diez de Ultzurrun Sagalá

KAZETARIA ETA ITZULTZAILEA

Ezagun independentziazale bat itzuli da Bartzelonara Errepublika ezarri ondoko lehen asteburuan. Mikaztu zaio egonaldia, eskuin muturrekoak lasai-lasai nola ibili diren ikusita, eta mugimendu independentistaren isiltasunak harrituta, “unionistak ere ahaldundu dira, eta karrikak ez dira gureak izan, haienak baizik”

haienak baizik”. Bat-batean, Antonio Baños CUPEko kidearen txio suspergarri batek itzuli dio irribarra: “Oroitzen zarete ez zituztela hautestontziak topatu? Isiltasuna ez da beti inakzioa”.

Bitartean, Kataluniatik datozen haizeak baliatu nahia sumatzen da, hemen ere bulkada ahalik eta lasterren emateko. Baina, aldi berean, hango abiadaren (bere adiera guztietan) aldean, aunitzen ustez, “inakzioa” nagusi da Euskal Herrian, gelditasuna, moteltasuna. “Herri hau lo dago eta iratzartzeko aldia da” entzun nion bati lehengoan. Hori hala bada, zerk lokartu du? Zerk utzi du indarririk gabe eta leher eginik? Ez al dute zerikusia urtetan “sua” itzaltzeko ahaleginean xahututako indarrek, eginahalek, izerdiek eta neke gorriek? Hala ere, Katalunian gertatu bada, hemen ere gerta daiteke, bere neurrian, urratsez urrats. Nork erranen ote zuen duela zortzi urte Joseba Asiron izanzen zela Hiri Buruzagiko alkatea, eta Uxue Barkos, Ekialdeko lehendakaria? Huskeria iritziko diote hainbatek, baina alimalekoa izan da, eta horixe da oraingoz gure joko-zelai nagusia. Bizkitartean, ea ez diren Nafarroako “unionistak” gehiegi ahalduntzen, eta ea gauza garen, hemendik urte eta erdira, bigarren agintaldia emateko Asironi eta Barkosi. ■

BERTSOLARI
TXAPELKETA
NAGUSIA
2017

Finalurrekoak 1.itzulia

Urriak 28, BASTIDA

Azaroak 1, IRUN

Azaroak 4, MAULE-LEXTARRE

Azaroak 12, DURANGO

Antolatzailea

Laguntzailea



ARGIA

bertsozale.eus

Ofizialtasuna eta zerrenda bakarra



Mikel Basabe
IRAKASLEA

Mikel Asurmendiri irakurri nion ARGIA n bertan Hegoaldeko ez dugula Iparraldearen berri (ia) ezagutzen. Esango nuke egia dela, eta gaineratuko nuke Nafarroaren errealtateari buruzko ezagutza ere, behar baino mugatuagoa dugula Mendebaldean.

Horregatik pentsatzen dut korner honetako gehien-gehienok jakingo dugula euskara ez dela ofiziala Nafarroa osoan, baina askoz gutxiago izango garela zerrenda bakarraren kalapitaz jakitun gaudenok.

Ostera, bi-biak dira eztabaidagai uneotan Nafarroan, eta biek dute ardatz bera: euskara.

Aspaldiko erreibindikazioa da euskara Nafarroa osoan izatea ofizial. Aurreko parlamentuekin ezinezkoa bazen, oraingoarekin ere bai. UPN, PSN eta PP kontra daudela gauza jakina da. Baina Ezkerra ere kontra dago, eta hura barik ez dago, gaur-gaurkoz, legea aldatu eta ofizialtasuna foru-erkidego osora zabaltzerik. Kito.

Hori esanda, iruditzen zait arrazoi puntu bat baduela Joxerra Olanok, LARRUN 223n dioenean berriro ere oposizioan izatekotan zaila izango dela ofizialtasuna eskatzea, agintean izan bitartean hura gauzatu ez bada. Gauzatzerik ez badago ere, ofizialtasuna aldarrikatu egin behar da, orain ere bai. Baina: lehenengo-lehenengo, ofizialtasunak zer esan gura duen argitu behar da. Horren bitartez –bitartekoa baino ez baita– zer bilatzen

dugun definitu beharrean gaude. Ez bakarrik euskal hiztunari zein eskubide ekarriko liokeen, baizik eta –batez ere, esango nuke nik– ofizialtasun horrek zein betebeharrak ekarriko liokeen euskaraz ez dakien nafarrari. Izan ere, pentsatzen badugu ofizialtasunak derrigor ekarri beharko lukeela euskara Nafarroa osoan ikasi beharra, orduan etxekalte ariko ginateke. Tren hori aspaldi joan zen (joaten utzi genion?) eta EAEn duela ia berrogei urte posible izan zena ezinezkoa da gaurko Nafarroan, non euskararen bultzada eskubideen errespetuan oinarritu behar den, ez betebeharrak ezartzearekin. Eta eskubideetan oinarrituta ere, nahikoa lan: begiratu bestela Ezkerraren jarrera hezkuntzako zerrenda bakarraren gaian.

Lanerako ildoak, beraz: ofizialtasuna, nafar elebidunen eskubideak Nafarroa osora zabaltzeko, baina ez elebazarrei hizkuntza betebeharrak ezartzeko. Administrazioako lanpostuetarako, EAEko sistema zein den ondo azaldu, hala eskatzen den euskara mailaz, nola euskara ezagutzaren bat jartzeko jarraitzen den prozeduraz–, eta Araneren Legeari begiratu bat eman.

Eta definitzea eskatzen ari naizenez, beste eskaera bat ere egingo dut Mendebalde honetatik: jakin gura nuke Kontseiluak zer iritzi duen euskararen kaltetan izango diren Heziberri eta 3L ereduaren gainean. Horretaz ez baitiot txintik entzun. ■

Balirau



Itxaro Borda
IDAZLEA

Astekari honetan berean, kronikariek ederki agertu dute Kataluniako aferak nola atxikitzen gaituen hatsa trenka hurran: egun oroz zerbait berri jaukitzen zaigu, alde batetik edo bestetik, guztiak, iragan urriaren 27ko Kataluniako Errepublikaren deklarazioaz (15:27) geroztik are gehiago dabilazala, din-dil, leize gainean hedatu burdinazko hariaren orekan.

Euskaldunak, anitzek diotenez, Bartzelonako katalanisten ekinari inbidiaz begira dagozkie “zergatik ez gu” galdezka bezala, ongi dakitelarik ez garela horretara prest, ez instituzionaliki, are gutxiago kolektiboki. Europak, halaber, ez du kuraia politiko askorik erakusten gertatua

eztabaidatzeko bederen, bakoitzak bere kalkuluak egiten ditu, Macronek adibidez, badaki leku seguretik Puigdemont hautatzen baldin badu, zer galduko duen Rajoyen parean (sostengu bat alabaina, Bruselan –ustez irabazle– negoziatu duen Langile Ibiltarien akordioan).

Nik, alta, nahiko nuke beso-indarkak iraun dezan, aste bat, hilabete bat oraino, katalanen faborez bistan dena. Espainiako Gobernuak bereziki ez dezan bere kontrola zorrotz pean eman TV3 katea, *Nit I Dia* telesaila gaitzaren hirugarren sasoiaz gozatzea espero dudalako 2018an ere.

Balirau, lirauke: *Visca* Sara Grau & Aitor! ■



“Administrazioak umeak lapurtu dizkigu”

Hainbat gurasoren garrasia da, minez eta amorrus betea: seme-alabak kendu dizkiela administrazioak, haiek behar bezala zaintzeko kapaz ez direla iritzita. Salatu dute arinkeriaz eta gehiegikeriaz jotzen dutela teknikariek, txostenak puztuz eta desitxuratuz, bermerik ez duen atzera-bueltarik gabeko prozesuan umeak betiko galtzen dituztela. Nola funtzionatzen du haurren babeserako zerbitzuak eta zer dago horren guztiaren atzean?



Mikel Garcia Idiakez

@mikelgi

ARGAZKIA: DANI BLANCO

Seme-alabengandik bidegabeki banandu dituztela salatzen duten gurasoen elkarteak da Marea Turquesa, iaz Espainiako Estatuan sortua. Pasa den ekainean hasi zuen bere ibilbidea Marea Turquesa Euskadik eta 15 guraso inguru dira dagoeneko. Gipuzkoako hiru amarekin bildu gara gu. “Orain lasai har dezakezu arnas, munduko denbora guztia daukazu zuretzat”, esan zion Diputazioko teknikariak Maiteri (izen faltsua). “Nik ez dut nahi munduko denbora guztia niretzat, nik nire seme-alabak nahi ditut!”. 2 urteko semea harrera-familia batekin eta 4 urteko alaba zentro batean ditu Maitek ekainetik, bikotekidearengandik banandu eta emakumeentzako aterpetxe batean zegoenean bizilagun batek salatu zuelako alabari errieta egin ziola oso hitz itsusiak erabiliz; “eta gero puzten eta puzten joan dira, nirekin zerikusirik ez duten iradokizunak bata bestearen atzetik, ez hanka ez buru: depresiorako joera dudala, tratatu txarrak ematen dizkidaten gizonenganako joera, zainak moztu nahi izan ditudala (Jainkoarren, baina nondik atera dute hori?!), tronpa-ligadura egiteko esan zidatenean ezetz esan niela ere jarri dute

txostenean, alabak ilea ez zuela garbi eramaten (*rastak* dituelako)... Munstroa banintz bezala jarri naute txostenetan, baina nire umeen zaintzan buru-belarri aritu naiz beti. Urte luzez auzo berean bizi izan gara eta inoiz ez dut inolako arazorik izan inorekin, alaba eskola on batera joan da 2 urte zituenetik, ez zaie inoiz jatekorik, janztekorik eta baliabiderik falta izan; zergatik ez diete umeei galdetzen? Begira zein bitxia, Osakidetzaiko psikiatrak egin didan txostenak eta Diputazioak hautaturiko psikologoarenak ez dute zerikusirik”.

Arantxa Akizu eta bikotekidea desintoxikazio zentro batera sartu ziren, beren borondatez, eta bitarte horretan, euren familia izan zen haurra kendu ziena, horretarako izapideak eginez. Zentrotik atera ostean, ordeak, umea ez zietela “inolaz ere” itzuliko esan zieten Diputazioan. Hiru urte daramatza kontsumo-analisietan negatibo ematen, txosten ofizial positiboak pilatzen eta epaiketak eskatzen, baina alferrik. Itxaropena ez du galdu, halere.

Ama izateko aukerarik ez diote eman Susanari (izen faltsua): haurdun zegoenean, bikotekideak eta biek gizarte

zerbitzuetara jo zuten, laguntzaren bat lortzeko esperantzan, baina oso bestelakoa izan zen ondorioa. Egoera berean dauden askoren esaldia da Susanarena: “Madarikatua gizarte zerbitzuetara jotzea erabaki genuen eguna!”. Erditu eta bost egunera, Diputazioak aginduta umea eraman zuten ospitaletik bertatik; “marihuana erretzen nuela leporatu zidaten (porro bat egunean!), diru-sarrerak nahikorik ez genuela, gazteagoa nintzenean harrera-zentro batean egon nintzela, aurreko harreman batean tratatu txarrak jasotzeagatik asko sufritu dudana emakumea izan naizela eta nire iragan gatazkatsuegatik ezin dudala bizimodu normal bat izan... Nire iraganagatik betiko kondenatu naute eta nik iragan gogorra izan dut, bai, baina zenbatek bukatuko zuketenean bizimodu kaltegarri batean kateatuta? Ni aurrera atera naiz, beti aritu naiz lanean, ile-apaindegian ez bada tabernan, eta hori guztia ez dute baloratu. Aurrez epaitua zaudenean zaila da buelta ematea, umea ‘badaezpada’ kentzen dizute, eta gero hor konpon. Orain, hilero analisiak egiten ditut frogatzeko ez dudala ezertxo ere hartzen, bikotekidea lanean ari da kontratu bate-

» **SUSANA, AMA:**

“Hilero analisiak egiten ditut frogatzeko ez dudala ezer hartzen, bikotekidea kontratuarekin ari da lanean, etxebizitza egonkorra daukagu... baina aldaketa horiek guztiak ez ditu kontuan hartu Diputazioak”

» **PATXI AGIRIANO, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA:**

“Bereiztea azken neurria da eta aurretik ahalegintzen gara familiak baturik jarraitu dezan bestelako esku-hartzeak egiten. Izatekotan, esku-hartze goiztiarra falta da”

» **ABOKATUA:**

“Beste herrialdeetan, erabakia hartu aurretik audientzia ematen dizute, alegazioak aurkezteko aukera... Hemen defentsarako eskubidea gerorako uzten dute: lehenengo umea hartzen dute, eta gero zuk ikusi helegitea jartzen duzun”

» **C. GARCÍA, KAZETARIA:**

“Harrera zentroak pribatuak dira eta interes handia dago plaza guztiak beteta egon daitezen”

kin, ni ikasketak egiten ari naiz nire poltsikotik ordainduta, etxebizitza egonkor bat daukagu... eta aldaketa horiek guztiak ez ditu kontuan hartu Diputazioak. Are okerrago, epaiketa eskatu dugu eta bertan behera uzteko esan dio epaileari Diputazioak, gure aurrekariak aintzat hartuta. Preso sartzen dutenak gutxienez seme-alabak berreskuratu ohi ditu kartzelatik ateratzen denean, bada guk ez daukagu horretarako eskubiderik”. Susanak eta bikotekideak azaro bukarean dute epaiketa, umea jaio, kendu eta ia urtebetera.

“Bizitza zaila izan dugulako, ez dugu merezi umea izatea? –diote– Baliabide gutxiko jendea garela aprobeztatzen dute. Ez gara inor haientzat, azken honddarra, eta zenbat eta zaurgarritasun egoera handiagoan egon, orduan eta harrapakin hobea gara”.

Gizarte zerbitzuak, azpikontratak eta administrazioa

Administrazioak du erabakimena seme-alabak gurasoengandik banantzeko, baina segimendua administrazioetik kanpo jarduten duten lan-taldeek eta enpresa azpikontratatuak egiten dute, eta txosten horietan oinarrituta hartu ohi ditu erabakiak administrazioak. Garbi utzi nahi du Gipuzkoako Diputazioko Haurren eta Nerabeen Babeserako zerbitzuburu Patxi Agirianok: “Bereiztea azken neurria da eta aurretik ahalegintzen gara familiak baturik jarraitu dezan bestelako esku-hartzeak egiten. Gipuzkoan, gaur egun, 1.117 ume ari dira familien gaineko esku-hartze programetan parte hartzen eta babes neurriak dituztenak 695 dira”. Balore Tresna izeneko metodo “objektiboa” erabiltzen dutela kontatu digu: “Tresna hori berriz berriz ebaluatu du Euskal Herriko Unibertsitateak. Balioespen psikosozial horietan umearen bizitzan dauden eragileek ematen duten informazioa alderatzen da (eskola, Osakidetza, aisialdiko ekintzak, senideak...). Txostenetan biltzen den informazio guztiak egiaztatuta eta alderatuta egon behar du, kalitatea, objektibotasuna eta erabakien zehaztasuna bermatzeko. Gainera, horrelako erabaki bat hartzen denean, maiz bidea luzea izan da aurretik, udaletik igaro da eta ondoren aldundietatik. Zeribait faltatzekotan gure babes sisteman, esku-hartze goiztiarra falta da”. Neurri eta ebaluazio guztiak modu kolegiatuan

egiten direla eta hiru mailako filtro-sistema dutela azpimarratu digu Agirianaok: lehen maila batean, kontratupeko taldeak egin duen proposamena erakunde bertan aztertu behar da modu kolegiatuan; bigarrenik, foru-profesionalak berriz aztertzen du neurria; eta hirugarrenik, behin betiko proposamena “zurrunki” aztertzen du batzordeak. “Azkenik, eta filtro horietatik igaro ondoren, proposamena foru diputatuari bidaltzen zaio”.

Gaiotan aritzen den abokatu donostiar bati galdetu diogu eta berak ez du hain garbi ikusten: “Nik ez dut esaten gehienetan esku-hartzea justifikatuta ez dagoenik, argi dago arriskuan dauden umeak badirela, baina egia da kasu ugartan gehiegizko esku-hartzea dagoela administrazioaren aldetik. Gaia zaila da, ez delako pertsona bakarra erabakia hartzen duena, talde-lana dela suposatzen da, batzuen eta besteen txostenak daudela tartean, baina nik ikusi ditut oso bideratuta dauden txostenak: gauza batzuetan fokua jarri eta aldiz, interesatzen ez zaizkien gauzak jaso ere egiten ez dituztenak; gurasoen alde egin dezakeen informazioa berariaz ezkutatzeak asko esaten du batzuen objektibitateaz. Gurasoak gizarte zerbitzuetara doaz laguntza bila, solasean ari direlakoan interrogatorioa egiten ari zaizkie, hasten dira txostenak gora eta behera, iraganeko informazioa ere erabiltzen dute zure kontra, bergizarteratzeko eskubiderik ez bazenu bezala, eta azkenean aurkitzen duzu lizentziatu berri den gaztearen idatzia, esperientziarik gabea, gurasoen jokabidea zorrotz epaizten, pedagogian aditua bailitzan”. Gizarte zerbitzuetan zein egokitzen zaizun, juzguak oso erraz egiten dituztela dio Maitek: “Niri gertatu zait, aurrez aurre inoiz izan ez nauen gizarte laguntzaileak idaztea niri buruzko txostena, psikologoaren, aterpetzeko jendearen eta hirugarren pertsonen hitzetan oinarrituta. Eta ez da kasualitatea, beti berrdinak dira halakoak egiten dituztenak, badakidalako niri umea kentzea ahalbidetu duen gizarte laguntzaileak beste askori gauza bera egin diela”.

Zergatik, baina?

Elkarriketatutako dugun abokatuaren esanetan, administrazioetik kanpoko enpresa eta profesional askok egiten du lan arlo honetan, diru asko mugitzen

da, eta batzuetan badirudi makineriak funtzionatzen jarraitzea interesatzen zaiola hainbati, euren lana justifikatzea: “Zerbitzu publikoak enpresa pribatuei azpikontratatzeko ditzkiezunean, bestelako interesak tartekatuta daitezke”. “Harre-
ra zentroak pribatuak dira eta interes handia dago plaza guztiak beteta egon daitezke”, dio Consuelo García kazetariak, Espainiako Estatuan gaiak duen dimentsioaz aurrean ateratzen duen ikerketa liburuan (*El desmadre de los servicios sociales*). Azpikontratatzeko arriskuak ukatu dizkigu Agirianok: “Gestioa egon liteke azpikontratatu, baina erantzukizuna publikoa da beti. Horregatik, gure funtzioa da bermatzea lana irizpide eraginkor eta koherenteekin egiten dela eta kalitate kontrolak badira horretarako”.

Administrazioak erabaki behar du, ala epaileak?

Europako hainbat herrialdetan, epaileak agindu behar du adin txikien esku-hartzea, baina Espainiako Estatuan administrazioak du horretarako eskumen osoa, eta ez du inolako baimen judizialik behar. “Berdin dio duela gutxi gurasoak dibortziatu eta sententzia bat egotea umearen zainketa zehazten duena, administrazioa iritsi eta bestelako erabakia har dezake lasai asko”, dio abokatuak.

Hain juxtu, Patxi Agirianoren zatia idealena da eskumena administratioarena izatea eta ez Justiziarena: “Haurren babes sistema, zorionez, gizarte zerbitzuetan dago, eta bermatzen du maila guztietan egiten den esku-hartzea, balizko babesgabekia egoerak atzemate barne, hezkuntza eta psikologian presakuntza egokia duten profesionalen ardurapean, eta bermatzen du azkarta-

sun handiagoa esku-hartzean, susmoa baitugu umeen bizitzan eragingo duten erabakiak atzeratuko liratekeela babes-sistema judizializatuta balego”.

Prozedura horri hutsune handiak ikusten dizkio abokatuak, ordea: “Beste herrialdeetan, erabaki administratiboa hartu aurretik audientzia ematen dizute, alegazioak aurkezteko aukera... eta hori printzipio konstituzionala da, defentsarako eskubidea. Hemen defentsarako eskubidea gerorako uzten dizute: lehenengo exekutatu egiten dute, umea hartu, eta gero zuk ikusiko duzu helegitea jartzen duzun ala ez. Babesgabekia handia sortzen du horrek. Batetik, askok ez duelako helegitea jartzeko baliabiderik ez indarrik; lotsa eta beldurra tartekatzen dira, edo administrazioak leporatutako argudioren batengatik errudun sentitzen dira eta administratioaren dinamika barneratzen dute, bisita-orduak negoziatzen, terapia egiten... Bestetik, helegitea jartzea erabakiz gero, erreakzionatzen duzunerako eta epaitegiak esku hartzen duenerako, gutxienez urtebete igarotzen delako tartean”.

Abokatuaren hitzetan, helegitea jartzea bera gaizki hartzen du administratioak, “ez duzulakoan tratamendua onartu, haien egia onartu, zure bizimodua aldatzea onartu”. Epaitegietan talde psiko-sozial ona dagoen arren administratioak indar handia duela, bere lan-taldeak aurkeztutako txostenek pisu handia dutela eta argudio ugari subjektiboak direla dio abokatuak. Emaizta, ia inoiz ez dutela gurasoek irabazten. Administratioaren inpunitate eta botereriaren isla da elkarrizketatu ditugun amentzat; aldiz, arrazoia administratioak duela esan nahi du Agirianoren-



Arantxa Akizu zarauztarrak hiru urte daramatza borrokan, alaba berreskuratzeko (Akizuk utzi digu argazkia). 2016an, 46 helegite aurkeztu ziren Familia Epaitegian, eta guztiak ezetsi zituzten.

tzat. Berak eman digu datua: 2016an, 46 helegite aurkeztu ziren Familia Epaitegian, eta guztiak ezetsi zituzten.

Atzera-bueltarik gabeko erabakia?

Beste kritika bat nabarmentzen dute amek, artikulatu hasierako testigantzetan ere jasoa: leporatzen dizkieten jarrerara desegokiei buelta eman arren, zuzendu beharrekoak zuzendu arren, ez dutela seme-alaba berreskuratzeko. “Beste herrialde batzuetan, umea kendu diezazukete, baina saiatzen dira gurasoek dituzten arazoei aurre egiteko baliabideak

IX Euskal Soziolinguistika Jardunaldia 2017

azaroak 22

Carlos Santamaria zentroa
DONOSTIA

Izena emateko epea: azaroak 17

<http://www.sociolinguistika.eus/jardunaldia>

Arnasguneak
eta udalerri euskaldunak:
gaurko eta biharko **#ERRONKAK**

Antolatzaileak:



Laguntzaileak:



Babeslea:



jartzen, gero umea berreskuratu ahal izan dezaten. Hemen aldiz, abiapuntua da familiari lagundu beharrean umea behin betiko kentzea, eta gero familia da berreskuratzeko ahaleginak egin behar dituen”, kexu da Arantxa Akizu.

Agirianok dio ez dela horrela, kontrol eta ebaluazio etengabea dagoela, eta esku-hartzeak uneoro birbideratu daitezkeela: “Lan handia egiten da familia batuta egon dadin hasieran, edo familia berriz batzeko, gero. Baina txirotasuna edo toxikomania babes-neurriak hartzeko elementu direla pentsatzea ez da zuzena. Kontuan hartu beharreko adierazleak dira, bai, baina gakoa beti da ea guraso horiek kapaz diren edo ez umeak zaintzeko”.

Kontuak kontu, datuek diote hasieran “behin-behineko” gisa izendatutakoa “behin betiko” bihurtu ohi dela, eta haurrak bukatu dezakeela harrera-familiak adoptatuta, guraso biologikoengandik urrun (harrera-familiak 600 euro jasotzen dute hilero ume bakoitzeko Gipuzkoan).

Nahikoa al da ordubete astean?

Ordu edo ordu eta erdi astean izan ohi da gurasoek banandutako seme-alabekin egoteko duten tarte, teknikariren baten begiradapean. Nahikoa denbora al den galdetu diogu Haurren Babeseko zerbitzuburuari: “Ume bakoitzarekin, familiarekiko harreman beharren azterketa egiten da, eta behar horien arabera, eta umeak duen denboraren arabera, bisita-erregimena antolatzen da gurasoekin. Kontuan izan behar da guraso hauek arazo larriak dituztela, eta bereizteko neurria hartu dela min ematen ziotelako umeari eta ez ziotelako uzten modu osasuntsuan hazten”.

Jaio eta bost egunera kendu zioten umea Susanari: “Ez dut uste semeak ezagutzen gaituenik, berarentzat gara astean ordubetez kariñoa ematen dioten bi ezegun. Lehenengo hitzak, lehenengo pausoak... beste familiarekin emango ditu, eta izugarri mingarria da hori. Gainera, gero umea itzuliko al diguten erabakitzeke garaian, irizpide inportantea da haurrak zeinekiko duen atxikimendu gehien, baina norekin izango du, guk astean ordu eta erdiz baino ikusten ez badugu?”.

Maitek gauero telefonoz hitz egiten du zentro batean duten 4 urteko alabarekin: “Negar zotinka aritzen da, nirekin itzuli



SALUD180

» PATXI AGIRIANO:

“Txirotasuna edo toxikomania babes-neurriak hartzeko elementu direla pentsatzea ez da zuzena. Kontuan hartu beharreko adierazleak dira, baina gakoa da ea guraso horiek kapaz diren edo ez umeak zaintzeko”

» ABOKATUA:

“Nik ikusi ditut oso bideratuta dauden txostenak: gauza batzuetan fokua jarri eta aldiz, interesatzen ez zaizkien gauzak jaso ere egiten ez dituztenak, gurasoen alde egin dezakeen informazioa berariaz ezkutatzuz”

nahi duela esaten dit behin eta berriz”. 2 urteko semea harrera-familia batekin dago eta ordubete ikusten du astean. “Atzo behea jo nuen. Badakit harrera-familiak ez duela asmo txarrez egin, baina umearen urtebetetzean *collage* bat egin zioten ospakizuneko argazkiekin eta semeak erakutsi zidanean tristura handia sartu zitzaidan, nik apenas ospatu ahal izan dudalako berarekin urtebetetzea, eta pentsatzen dudalako nik ere eskaini diezaioke dala hori guztia”.

“Zerbait egingo zenuen”

Beldurra eta lotsa sentimendu ohikoak dira guraso hauen artean. “Ez da kontatzen zoazen zerbait, jendeak beti pentsatzen du, ‘zerbait egingo zenuen’, eta azkenean isolatu egiten zara”. Etengabe epaituak eta mespretxatuak sentitzen direla esan digute, “emakume bezala eta ama bezala”. Inpotentzia aipatu digute, umiliazioa, zaborra bailiran, baina ez daude amore emateko prest: “Gu bezala dagoen jendeak ikus dezala ez daudela bakarrik, bat eginik borrokatuko dugula”. Kontaktua gehitzeko eskatu digute: mareaturquesaeskadi@gmail.com. “Itxaropena ematen digu kolektiboak, indarra egiten digu elkartuta, epailearengana gero eta jende gehiago bagoaz agian lortuko dugu funtzionamendua eta lan egiteko modua ikertzea, kasu bakoitza berrikustea eta desegoki jokatu duten guztiak kargutik kentzea”. ■

ARGIA 2018ko egutegia

Egunero etxe, elkarte eta eskoletako hormak edukiz janzteko.

Eskatu orain ARGIAren egutegia.

Ba al zenekien?...

Hizkuntza gutxituak munduan

Umorea

Historiako emakumeak

Euskal Herriko pegatak

Mikroipuinak

Baratzerako trikimailuak

ARGIAren esanak

Egutegia

9€

50€

Egurrezko
taula
egutegia
opari

☎ 943 371 545

www.argia.eus/denda

denda@argia.eus

Ivan Miró Acedo

“ERREPUBLIKA BAT EZ DA ALDARRIKATZEN, ERAIKI EGITEN DA”

Bartzelonan jaioa 1975ean, kooperatibagintzan dabil buru-belarri: Sants auzoko Ciutat Invisible liburu denda kooperatiboa sortu zuen eta Katalunia osoan aritzen da proiektu kooperatibo eraldatzaileak sustatzen, interkooperazioa lantzen, erakunde publikoekin elkarlan bideak bilatzen... Kataluniaren independentzia helburu baino tresna da ekonomia sozialeko aktibistentzat, eta prozesu konstituziogilea demokratikoki eta behetik gora egin beharra azpimarratu du: “Herritarrek erabaki dezatela nolako ekonomia izan behar dugun”.



Estitxu Eizagirre Kerejeta

@eeizagirre

ARGAZKIAK: VICTOR SERRI

Kataluniako Ekonomia Sozial Solidarioko erakunde eta kideek manifestua ateratu zenuten urriaren 1eko erreferendumarekin bat eginez. Zer lotura du ekonomia sozial solidarioak independentzia prozesuarekin?

Ekonomia sozial solidarioa, ekonomia ulertzeko bere moduagatik da demokratikoa, autoantolatua, autodeterminazio ekonomikoaren aldekoa, eta beraz, lotura oso zuzena du Kataluniaren autodeterminazio prozesuarekin. Baina hori ez da ekonomia sozial mugimendu osoa.

Kataluniako ekonomia sozial solidarioko aktibista batzuontzat garrantzitsua zen gure kooperatibek eta espazioek babesa adieraztea independentzia prozesuari. Eztabaida nazionala gai sozialera bideratzeko modua ere bazen. Guk independentzia nahi dugu gizartea eraldatzeko. Independentzia ez da helburu, bitarteko baizik. Beharrezko ikusten genuen erdigunean eztabaida batzuket jartzea, debate markoa kontu identitariotik edo nazionalistatik zabaltzeko.

Baita ere ikusten dugu prozesu konstituziogile demokratiko bat egon behar dela, herritarren osotasunak erabaki dezan nolako ekonomiak antolatuko dituen gure beharrak. Trantsizioko itunak, 78ko Erregimenak, monarkiaren gaineko kontsentsuak, merkatu ekonomiak, estatuaren batasunak... horrek ez du baimentzen eztabaida konstituziogilerik, ekonomia eztabaidagai duenik. Indarrean dagoen ekonomia kapitalista da eta publikoa hainbat kasutan. Kito. Guretzat Kataluniaren askapen prozesua aukera bat da eztabaida sozial hau planteatzeko. Zer eredu sozioekonomiko nahi dugun, nola antolatu nahi dugun ekonomia.

Eztabaida sozial hori egin al da orain arte, edo orain da garaia?

Une honetan herritarren zati handi batek ekonomiaz eztabaidatzeko beharra du. Ikusi dugu hainbat eragile ekonomikoren jokaera zein izan den Katalunia eta Espainiaren arteko azken krisian.

Zer jokaera duten kapital handiko enpresek, La Caixak, Ibexeko enpresek, ADN kataluniarra duten kapitalismoaren operadore handiek... Kataluniako goi klase burgesak Espainiako merkatu batu baten alde daude. Eragile ekonomiko hauek egin duten xantaia politikoak ekarri du herritarren zati handi batek eztabaidatzeko beharra sentitzea, beste eredu ekonomiko batzuen inguruan jakin mina piztea. Eta guztion onerako eta herrialdearen zerbitzura egongo den ekonomia izateko premia larria sentitzea. Eragile ekonomiko horiek herria esplotatzen aritu dira, baliabideak xurgatzen, prekarizatzen, La Caixa eta Sabadell dira etxe-kaleratzaile nagusiak, Kataluniako langile klasea odolusten ari dira, eta langile klase kataluniarrak gehien behar dituenen babes politiko, ekonomiko eta sozialak, hartu eta mar-txa? Beste enpresa komertzial batzuk ere badoaz, merkatu kuotak galtzera gainera! Hau ekonomia-aren ikuspegi erabat instrumentala da.



XESetik (katalanez Ekonomia Solidarioaren Saretik) adostu dugu sustatuko ditugula ahalik gehien eraldaketa sozioekonomikoko eszenategiak, egungo testuinguruan. Saiatuko gara Katalunian Errepublikak prozesu konstituziogilean izan dezan debate sozioekonomikoa, errepublikarentzat nolako eredu ekonomikoa nahi dugun lantzeko. Adostasun horren barruan badaude kontu zehatzagoak: nola erraztu CDRek izan ditzaten eztabaidak ekonomia konstituziogile gaketan. CDRak kalea defendatzen ari dira gehiago, herri botere politikoagoa da, baina interesgarri iruditzen zaigu herri botere ekonomikoa ere izan daitezela. Zabaldu ditzatela alternatiba ekonomikoa, beren udalerrietan planteatu ditzatela zein proiektu ekonomikoa sustatu nahi dituzten eraldaketa soziala azkartzeko.

CDRetako jardunaldi batean ari ziren adierazten prozesu konstituziogilean partaide izan behar dutela, konstituzio berria herritarrek eginga izango dela bermatzeko, eta herritar batek publikotik ezbaian jarri zuen, "indarrak banatzea zela, horretarako daudela alderdi politikoak, Òmnium eta ANC".

Debate horrek adierazten du errepublikaren planteamendu liberalaren ahulezia. Ikuspegi liberalaren arabera, errepublika aldarrikatu egiten da, prozesu juridiko bat da, goitik eraikia, konstituzio eta aditu batzuekin. Hau da errepublika liberalaren ikuspegia dutenen eredu. Eta hori da bere ahulezia nagusia. Zeren errepublika bat ez da aldarrikatzen, eraiki egiten da. Harreman material bat da, ez harreman juridiko bat. Zuk ez baduzu indar material errepublikarrik, errepresentazio modu bat soilik eratzen baduzu oinarrian ezer izan gabe, ezingo duzu errepublika altxa. Hau da Kataluniako Errepublika proiektuak orain duen ahulezia nagusia: errepublikaren errepresentazio baten aldeko apustua egin dela, baldintza materialak sortu gabe berau aplikatua, garatua eta eraikia izan dadin. Guk beti aldarrikatu dugu prozesu konstitugile bat ez dela formala, materiala baizik. Prozesu konstituziogilea egin behar da gako herrikoian, sozio-ekonomia gakoan, indar materialen korrelazioen gakoan, klase gakoan, ekonomiaren jabetze kolektiboan... edo garatzen da ekonomia kolektibista, demokratikoa eta guztion

EKONOMIA SOLIDARIOA INDARTSU KATALUNIAN

"Oinarritzko faktore hauek eragin dute ekonomia sozial solidarioak Katalunian zentraltasun handiagoa izatea, gehiago ikustea, bere buruaren kontzientzia handiagoa izatea, aurreko ziklo ekonomikoa-politikoarekiko.

Bata, noski, krisi ekonomikoa: ase gabeko behar berriak sortu ditu, eta proiektu ekonomikoa berrien oinarrian dagoen energiaren modukoa da.

Beste elementu bat da mugimenduak soziopolitikoki artikulatzeko duen gaitasuna: antolatzen ari da eta gero eta ikuspegi estrategikoa handiagoa izan du, ez dira merkatuan lehiatzeko garatzen diren kooperatiba solte hutsak; sektorearen zati batek, ekonomia sozial solidarioak, badu eraldaketa sozialaren ikuspegi estrategikoa bat. Antolaketa estrategikoa hau handitzen joan da azken hiru-lau urteetan.

Ekonomia sozial solidarioaren zati batek ikuspegi politiko bat ere landu du, nola esku hartu erakundeetatik ekonomia sozial solidarioa sustatzeko, zer funtzio dagokion herriko administrazioari edo autonomikoari...

Erakundeetan, ziklo municipalista izan da, eta honen sustraiak hainbat erro ditu, bata M15, CUP... ziklo municipalistak eragina izan du ekonomia sozial solidarioan. Lehen ekonomia sozial "konbentzionala"

soilik sustatzen zen, "langabetuek kooperatibak edo elkarte laboralak sortzeko...", eta orain, udal askotan ulertzen da ekonomia sozial solidarioa eremu sozio-ekonomikoa oso bat dela, eta badituela forma batzuk komunitarioagoak. Eta badago apustu bat sustatzeko eremu sozioekonomikoa hau, ekonomia pluraleko marko baten barruan. Horrek dakar herrietan ekonomia sustatzerakoan ez soilik kapitalismoa bultzatzea.

Erakundeetan ere independentzia prozesuak indar soberanisten arteko indar harremanak eraldatu ditu: aurreko lege-gintzaldian CIU hegemonikoa zen ekonomia eremuan, eta honek bere ondorioak zituen ulertzen zelako kooperatibek beren burua eraldatu eta egokitu behar zutela marko ekonomikoa orokorrera. Eta gobernu berriarekin, ERC-k du ekonomia sozialaren eskumen politikoa. Haiek ekonomia sozialaz hitz egiten dute, ez solidarioaz. ERCk ez du oraindik bere ikuspegia eredu osoenera ireki, eredu tradizionalen jarraitzen du. Baina apustu sendoa egin du kooperatibismoa sustatzeko, Ateneo Kooperatiboen proiektuarekin. Ikusiko dugu hau guztia zertan garatzen den, Generalitat kolonialaren garai honetan. Eroriko ote den beldur gara".

onuraren zerbitzura dagoena, edo ez da errepublikarrik izango.

Prozesu konstitugilea anitza izan behar da, behetik eraikitakoa, eta Katalunia osoan dagoen aniztasun territorial, sozial eta politiko osoa integratzen duena. Hemen bada ohiko parte-hartze-tik kanpo dagoen herritarren zati bat, migranteen kolektiboa, auzo askotan %20 dena, eta garrantzitsua da jende hau subjektu aktiboa izatea nazio erakuntzan. Faxismoak erasotzen dituen lehenak dira... euren eskubideen urraketek ez badie erantzuna ematen prozesu konstituziogileak ere, arazo handia izango da. Garrantzitsua da espazioak irekitzea, prozesu konstitugilea plurala izan dadila. Eta debate sozialerako legitimatu daitezela ireki diren espazio politiko guztiak: prozesu konstituziogilea

ezin da izan trantsizio nazionalerako espezialisten komisioko huts bat, hori errepublika liberalaren proiektua da. CDRak (katalanez sorreran Erreferendumaren Defentsarako Komiteak eta orain Errepublikaren Defentsarako Komiteak) legitimatu behar dira egitura berri bezala: txikiak eta xumeak dira, baina sarean antolatuta daude eta mobilizatzeko gaitasuna dute. Proposamenak egiteko eta erabakiak hartzeko espazio izan behar dute CDRek.

Lehenik, ikusgarri egin behar dira erreferenduma defendatzeko borroka egin duten eragile guztiak eta eragile horiek guztiek eraiki behar dute errepublika. Nekazariak, beren traktoreekin, planteatu behar dute nekazaritza eta lurralde eredu, eta gainerako dena ere bai. Errepresioa jasaten ari dira, Madril-

go Nekazaritza mahaitik bidali dituzte eta 30 milioi euroko diru-laguntzak izoztu dizkiete. Suhiltzaileek parte hartu dute, bada haiek ere erabaki behar dute zer errepublika nahi duten, nolako zerbitzu publikoak nahi dituzten... eskole-tako irakasleek dena eman dute erreferendumean, eurek planteatu behar dute hezkuntza eredua, eta erreferenduma babesteko aktibatu den hezkuntza eredu, eredu publikoa izan da, oinarritik lanean ari dena. Eskoletako gurasoak, kooperatibak, kontsumo elkarteak, zama-ketariak... Erreferenduma harrigarria izan zen, auto-antolaketa gaitasun handia erakutsi zuen, masan eginga eta desobedientzia oinarritua. Europan azken urteetan egin den esperientzia indartsuenetakoa izan zen. Baina urriaren 3ko greba orokorrari ere eman behar zaio izan zuen balioa. Greba orokorren asanbladan eragile guztiak geunden elkartuta, eta hori ere botere konstituziogile eraldatzaile indartsua da, eredu politiko-ekonomikoaren aldaketarako oinarria ziren asanblada haiek. Horiek dira artikulatu behar ditugun espazioak. Hortik atera behar du konstituzioak.

» “Hemen bada ohiko parte-hartzetik kanpo dagoen herritarren zati bat, migranteen kolektiboa, auzo askotan %20 dena, eta garrantzitsua da jende hau subjektu aktiboa izatea nazio eraikuntzan”

» “Ikusgarri egin behar dira erreferenduma defendatzeko borroka egin duten eragile guztiak eta eragile horiek guztiek eraiki behar dute errepublika”

Hori nola egiten da?

Paper idatzia badugu: XESen zehaztua dugu nolakoa izan beharko lukeen ekonomia sozialaren legeak, eta hortik atera daiteke nolako ekonomia eredua eraiki dezakegun. Baina hori dena papera da, ez da nahikoa. Ekonomia solidarioaren saretik ikusten dugu prozesu konstituziogilean badagoela guztiontzako lana. Adibidez, eragile politikoek errepublika materialki eratzeke fase honetan parte hartu dezakete zerbitzuak munizipalizatuz: Bartzelonako Urak agentziak bere egoitza soziala aldatzen badu, Barcelona En Comú, aldaketaren hiriek eta abarrek ur enpresak munizipalizatu ditzakete, adibidez. Hau nazio gakoetan eginiko debate bat da? Bai. Baina batez ere, entitate berri bat materialki eraikitzeke modu bat da, kolektibista eta demokratikoa. Egungo eszenategian, XESetik argi dugu mundu guztiarekin egin behar dugula lan. Bildu behar gara Omniumekin, ANCrekin, eta debate ekonomikoa planteatu behar diegu. Baina baita Barcelona en Comúekin eta bere inguruko organoekin ere, debate konstituziogileak planteatuz. Eredu sozioeko-

Adi bardularrak,
karistiarrek eta
autrigoia: baskoien
hilabetekari berria
kalean da!



Info gehiago:
ELSALTODIARIO.COM

nomikoan aurrera egiteko eremu handia dago. Ez dakit zergatik ez den banku publiko bat egin errepublika aldarrikatu eta biharamunean, edo zergatik ez zen lehenago egin!

Alderdi politiko independentistak prest egon daitezke horrelako prozesu konstitugile herritar bat egiteko? Edo eliteen indarra gailenduko al da?

Uste dut denok oso eskuzabal jokatu behar dugula une honetan. Agian egongo dira hau ontzat ikusiko ez duten PDeCAT-eko fanatiko liberalak, baina uste dut gutxiengoa izango direla. Bloke soberanista kontziente da zer aliantza egin diren azken hilabeteotan eta mundu osoak eman duen guztiaz, eremu denetan. Proiektu kolektibo bat izan da, kolektiboki jaso behar duena bueltan. CUP, Podem eta ezker antikapitalistako sektoreek babestuko dute, baina nik uste dut ERCK ere ohore egin behar liokeela bere genealogia errepublikar, kolektibista eta demokratikoari, eta sozio-ekonomia gehiago eraldatuko duen prozesu bat babes dezakeela.

Ezkerreko jendearentzat errepublika edukiz betetzea da interesgarria, baina erreferendumaren aurretik eta orain arte, errepresioari aurre egitera bideratu behar izan dira indar asko.

Agertoki antierrepresiboa ez da ilusio-nagarria. Beldurrak atzera eginarazten du edo erresistentzia eremuak sorrarazten ditu. Ekonomia soziala solidarioa atzeguardia da, beti eraikitzen saiatzen dena. Gure ekarpenak eraikitzea izan behar du. Baita erresistentziarako erremintak sortzea ere: dirua bilatu behar bada gai batzuk finantzatzeko edo zaintza kolektiboko espazioak sortu behar badira. Atzeguardiako eztabaida hau planteatu behar da, beti ere alternatiba eraikitzeke asmoz, ez erantzun bat emateko soilik, baizik, sinesten dugulako defendatzen ari garen gizarteak horrela funtzionatu behar duela.

Estatu egiturarekin beti kritiko izan direnek estatu eredia landu behar dute orain.

Askotan errezeloz begiratu diogu estatuari, estatuak bereganatzen zuelako kolektiboki ekiteko daukagun gaitasuna. Ez zaigu interesatzen ekimen kolektiboak monopolizatuko dituen estatu hori. Ahalik eta egitura deszentraliza-



» “Proposamenak egiteko eta erabakiak hartzeko espazio izan behar dute CDRek (Errepublikaren Defentsarako Komiteak)”

» “Ahalik eta estatu deszentralizatuena interesatzen zaigu, munizipalismoa bultzatzea. Sozialki eta politikoki antolatzeke beste modu bat sortu behar dugu”

tuena interesatzen zaigu, munizipalismoa bultzatzea, tokiko burujabetza oso garrantzitsua baita. Ikas dezagun beste eredu batzuetatik: Kurdistango konfederalismo demokratikoak badi-tu ezaugarri interesgarriak, baita Hego Amerikako konstituzioek ere: botere bikoitza, herritarren parte-hartze espazioak, bestelako arkitektura politikoak... sozialki eta politikoki antolatzeke beste modu bat sortu behar dugu. Espainiako monarkiaren kopia bat egiteko, zentralista, goitik beherakoa, kapitalista... zertarako independentzia?

Independentzia aldarrikatu ostean beste fase batean sartu da Katalunia. Zer dator?

Epe ertain-luzeko eszenategian sartu gara. Zailtasunez betetako hilabete edo urteak etorriko dira. Gutxieneke eskubide demokratiko batzuk bermatu ahalko direla espero dugu, politikoak eta zibilak, antolatzen jarraitu ahal izateko. Hau da ekonomia sozial solidarioak duen beste arrazoi bat prozesu konstituziogile babesteko, monarkia espainiarrarekin alternatiba ekonomiko bat aurrera ateratzea oso zaila baita. Klandestinitetik –erreferenduma egin zen bezala– jarriko dituzu martxan kooperatibak?

Gehitu nahi duzunik?

Askok eskertzen dugu Euskal Herriatik jaso dugun elkartasun guztia. Benetan hunkigarria izan da. Beti egon da elkartasun hori, eta uste dut gero eta gehiago ari garela elkarrekin ikasten. Guretzat oso polita izan da Euskal Herriko ekonomia sozial eraldatzailearen babesa (Olatukoop), ulertu dugulako elkarrekin ari garela eraikitzen errepublika kooperatibo, solidario eta eraldatzaile bat. Guretzat oso garrantzitsua eta hunkigarria izan da kidesun hau. Baita Espainiako Estatuako beste sektore batzuekin izandakoa ere: REASEk komunikatu batean Kataluniaren autodeterminazioa babestu du, eta zoragarria da estatutik termino horietan planteatzea gaia, Andaluziako SAT sindikatua, Madrilgo antikapitalistak, eta noski, Valentzia, Mallorca... kidesun errepublikano hau aitortu eta eskertu behar da. ■

"ELS CARRERS SERAN SEMPRE NOSTRES"

kamisetak ARGIAAn salgai

Kamiseta hau erosita, 2 euroko ekarpena egingo diozu Kataluniako La Directa herri hedabideari, eta 2 euroko ekarpena ARGIAri, Kataluniako independentzia prozesua epe ertainera ere zorrotz jarraitu ahal izan dezan.



**Informaziorik gabe ez dagoelako demokraziarik,
kazetaritzan ere sustatu independentzia!**

ESKAERAK

Peio Monteano

“Euskara Nafarroako historian funtsezkoa izan da, eta bada”

Peio Monteano Sorbet historialari eta soziologo nafarrak ibilbide luzea du euskararen ikerketan. Oraingoan, frogatu du Aintzinarotik heldu zaizkigun dokumentuak gaztelaniazkoak izan arren, Nafarroan hitz egiten zen hizkuntza euskara zela. Dokumentu horiek izozmendiaren punta baino ez zirela, alegia. *Navarrorum* erakusketa antolatu du: balio handiko 36 pieza ikusgai jarri ditu, Nafarroako Artxiboan. “Kalte ordainketaren erakusketa” dela adierazi du.



TESTUA ETA ARGAZKIAK:

Ane Eslava Serrano

@eslavaane

Euskarazko lehenengo testuak Pizkunde garaioak izan zirela uste izan bada ere, lehenagokoak direla frogatu duzue.

Orain arte uste genuen euskarak ahoz-kotasunetik liburu inprimatura salto zuela, eskuizkributik pasa gabe. Azkeneko aurkikuntzek erakutsi dute Erdi Aroan dagoeneko euskarazko idazkiak zeudela. Oza-ozta ikus ditzakegu, baina ez dugu inprentaren agerpena arte itxaron behar.

Euskara garai hartan idazteko erabiltzen ez bazen, nola heldu zaizkigu orduko idazkiak?

Beste hizkuntzetako testuen bitartez. Latineko testuetan iragazi zen euskara, pertsonen eta jainkoen izenetan, batik bat. Horiek dira hizkuntzaren aldaketen aurrean gehien irauten duten elementu kulturalak; herri askotan, euskarazko izenek lurrari lotuta iraun dute.

Hitz egiten den hizkuntza ez idazteak historiaren manipulazioa ekar dezake?

Manipulazioa baino gehiago, akatsak eragiten ditu. Historialariok bi akatsen erori ohi gara: batetik, idazkiak bizitza sozialaren erakusgarriak direla pentsatzea; eta bestetik, idazten den

hizkuntza eta hitz egiten dena parekatzea. Hori ez da zuzena. Izan ere, herri-tarrek erabiltzen duten hizkuntza dago, idazten ez dena; eta beste hizkuntza batzuk daude, asko idazten direnak eta ia inork erabiltzen ez dituenak. Akats horiek idatzizkoaren begitazioa sortzen dute: idazten ziren hizkuntzak hitz egiten zirela pentsatzea.

Iragazi ziren testuek erakutsi dute XVI. mendean Nafarroako populazioaren gehiengoak euskaraz hitz egiten zuela.

XVI. mendean leherketa dokumental bat egon zen, garai hartako milaka dokumentu ditugu. Horri esker, estatistikako ikerketak egin daitezke eta kristal lausotu horren atzean zer dagoen ikusi. Garai hartako itzultzaileei esker ikusi ahal izan dugu: eskribauen belaunaldi batek jasota utzi zuen auzietako lekukoekin zein hizkuntzatan hitz egiten zuten. Atera ditugun ondorioak dira Nafarroako populazioaren %80k euskaraz hitz egiten zuela, eta gainera, %50 elebakarra zela. Hau jakinda, galdera sortzen zaigu: XVI. mendeko egoera hori bazen, aurretik zer egon zen? Izan ere, hizkuntzak ez zuen hobera egin denboraren joanarekin...

Horrek erakusten du konkistak ez zuela hizkuntzaren kolonizazioa ekarri.

Ikerketaren ondorioetako bat hori da. Konkista okupazio militarra izan zen, baina ez zuen kulturaren kolonizazioa

eragin. Gaztelaniari prestigioa eman zion; hala ere, aurreko egoeran administrazio hizkuntzak nafar erromantzea eta biarnesa ziren, erregeek ez zuten euskaraz hitz egiten. Beraz, euskararen egoera ez zen aldatu.

Zein izan zen inprentaren eragina?

Inprentak, Europako haustura erlijiosoarekin batera, iraultza eragin zuen hizkuntza guztietan. Liburuak sortzea ahalbidetu zuen, askoz ere merkeagoak, eta kopuru handietan. Baina irakurleak eduki ahal izateko, liburuak irisgarria behar zuen izan. Horrek hizkuntzen estandarizazioa bultzatu zuen. Hizkuntza estandarra zein izango zen erabakitzeke bi aukera zauden: lehenengoa, hizkuntza batu bat egitea; eta bigarrena, dialekto bat aukeratzea eta hori ezartzea. Euskararen kasuan bigarrena aukeratu zuten, eta goi nafarrera ezarri. Bestetik, Iparraldean ez zeuden inprentak, eta Hegoaldean, soilik Iruñean. Horregatik, Iruñea nukleoa bilakatu zen.

Zein izan zen euskalkien bilakaera?

Euskalkiekin zalantzak ditugu. Dialektologiek Erdi Aroan kokatzen dute dialektoen dibertsifikazioa, oso berandu. Esaten dutenez, dibertsifikazioa gertatu zen lurraldeak Nafarroatik politikoki bereizten joan ziren heinean. Horrek galdera sortzen du: zerk mantendu zuen euskara batuta horrenbeste denbora?



» “Atera dugun ondorioa da %80k euskaraz hitz egiten zuela”

» “*Kalte ordainketaren erakusketa* egin nahi izan dugu, hemen ez delako horrelakorik egin”

Hizkuntza ofiziala izan gabe, inposatu zuen autoritaterik gabe, errege akademia-rik gabe eta idatzizko tradizio-rik gabe... Halako zalantzak sortzen zaizkigunean pentsatzen dugu agian ez garela euskararen historia osoaz jabetzen ari.

Zer eragin izan zuen euskararen XVIII. mendeko zentralizazio prozesuak?

XVIII. mendearen erdi aldean euskararen gainbehera eta gaztelaniaren aldeko eskaria hasi ziren. Hezkuntzaren zabalkuntzak, kulturaren bateratzearen aldeko neurriek eta nazionalismoak euskararen gainbehera eragin zuten. Hizkuntzari kalte handiena egin zion prozesua hezkuntzaren hedapena izan zen. Eliteek bultzatu zuten, eta lehenik gizonena eta elitista izan zen, ondoren gizonena eta, azkenik, emakumeena; emakumeak izan ziren euskara gehien mantendu zutenak. Hezkuntza klase apalentzat eskuragarria izaten hasi zenean, euskaldun elebazarren kopuruak behera egin zuen.

Emakumeek eta gizonek modu ezberdinean bizi izan zuten gaztelanizte prozesua?

Emakumea etxean zegoenez, prozesu hori gizonen artean eman zen, gaztelania mundu publikora igarotzeko tresna zelako. Gainera, ordura arte ez zegoen hezkuntza publikorik, horregatik balioak etxean transmititzen ziren, emakumearen monopolioan. Haurrak etxetik ateratzean, ordea, emakumearen hezitzailearen paperak indarra galdu zuen. Euskara arlo pribatuan geratu zen, arlo publikotik bota zuten: hiritik, saltokietatik, kulturatik.

Zer gertatu zen handik aurrera?

XIX. mendean kultura bateratzearen aldeko ereduak hizkuntza bakarra jarri zuen erdigunean. Euskarak aldekoen eta kontrakoaren arteko talka pairatu zuen, baita auto-gorrotaren fenomeno ere. Jende asko euskaratik urruntzen zen, euren jatorri umiletatik urruntzeko; euren hizkuntzaren etsai nagusiak bi-

lakatu ziren. Estatusa bilatzen zuten, euskara nekazarien, baserritarren, nekameen hizkuntza zelako. Eskoletan euskara zapaltzen zuten eta familiek txalotzen zuten.

Hau guztia erakutsi nahi izan duzue *Navarorum* erakusketan?

“Kalte ordainketaren erakusketa” egin nahi izan dugu, nolabait. Hemen ez delako egin gai honi lotutako erakusketarik, hein handi batean interes politiko-kulturalik egon ez delako.

Nafarrei erakutsi nahi diegu euskara Nafarroako historian funtsezkoa izan dela, eta oraindik ere hala dela. Ohera ere transmititu nahi diegu, honek erakusten duelako mundu euskaldunaren ardatza Nafarroa izan dela. Gure lehenengo helburua da erakusketaren edukiak nafarrei helaraztea, baina gure mugetatik at hedatzeko aukera ere probestuko dugu. Askotan kanpotik etorri behar direlako hemen daukagun altxorren balioa gogoraraztera. ■

BABESLEA: **BIZKAIKO FORU ALDUNDIA**



Eman hegoak euskarari

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral
www.bizkaia.eus



María José Pizarro:

“GERRILLAZ MINTZATZEA IA TABUA DA KOLONBIAN”

Duela 27 urte hil zioten aita, berak 12 zituela, baina hura ez zen bidearen amaiera izan, erbeste eta urruntzealdi luze baten abiapuntua baizik. Egiaren bila, 2010ean Kolonbiara bueltatu zen María José Pizarro, M-19 gerrillaren buruzagi Carlos Pizarro zenaren alaba, aitaren aldarrikatzaile nagusi bihurtuta. Simón Hernández zuzendariak egindako *Pizarro* film dokumentalaren beste protagonista dugu María José, haren bitartez aita zenaren figura ezagutzeko aukera izango baitugu. Orduko eta egungo bake prozesuen gorabeherez mintzatu gara berarekin.



Jabi Zabala

@sarean

ARGAZKIAK: IÑIGO AZKONA

Nola sortu zen Pizarro filmaren proiektua?

Aitari buruzko erakusketa egina nuen Bartzelonan 2009an, eta orduan Simón Hernándezek proposatu zidan nire bilaketari buruzko dokumentala egitea. Aitaren bila ari nintzen, nire bizitza sorteriaren historiarekin konektatzen, hariak lotzen... Erbestetik egindako hausnarketak ziren, Kolonbian bertan egin ezin nituenak. Aitaren kideak izanda-koekin elkarriketak egiten hasi nintzen eta apurka-apurka prozesu kolektiboagoa bilakatu zen, 2010etik aurrera publikoago bihurtu zen. Barne katarsi batetik abiatu zen dena, min sakonak osatu nahian, haurtzaroan bizi izan nuen hau dena eta ulertu beharra nuen, zer gertatu zaigun, zergatik hil zuten aita. Aita eta bion arteko elkarriketa da filma, bere heriotzagatik eduki ezin izan genuena. Aita ageri da nire bidez, historia beraren bi zati moduko baikara, bion arteko haria osatu dugu.

Zer lortu nahi duzu filmaren bidez?

Oroimenen askotariko eraikuntzari ekarpena egitea, ezin da kontaketa hegemonikoa egon, oroimen bakarra, historia bakarra, ahots bakarra gailendu. Nolabait ahotsik izan ez duten beste sektoreei ahotsa ematea zen gure helburua, matxinada armatuari kasu honetan. Sektore horrek ezin izan du hitz egin, eta sakonki jasan ditu gatazkaren ondorioak. Gerrillaz mintzatzea ia tabua da herrialdean, izugarri gaitzetsi da, beraz, oso erraza da bestearen estigma egitea eta haren hilketa justifikatzea. Kolonbian beste sektore batzuek etsaitzat hartu duten gizartearen parte horri giza aurpegia eman behar diogu, adiskidetzeari ekarpena egiteko modua da, elkarriketaren logika sustatzeko. Halaber, belaunaldi berrietan hausnarketa eragitea du helburu, beraiek bizi izan ez dituzten gertakariak bihar-etxi errepika ez daitezen.

Aitaren zer oroitzapen duzu? Klandestinitatea bitartean, nolakoa zen zuen harremana?

Familiek egunerokotasun uneak bizi izaten dituzte, aitak seme-alabak jaso, eurekin denbora bat eman... Nire kasuan ez da hori gertatu. Oso une gutxitan ikusten nuen, aurrez iragarri gabe, eta itxuraldatuta egoten zen beti, ilea tindatuta edo bibotea kenduta, oso une

laburrak baina emozioz beteak ziren, bera gizon jazarria baitzen. Horregatik neu ere jazarria izan nintzen, estatuko sektore batzuentzat Carlos Pizarroren alaba izateagatik gerra ospila nintzelako.

Hedabideetan aitaren inguruko irudi zuzena, osoa eman dela uste duzu?

Faseak egon dira hor, erabat gaitzetsia izan zen, gero idealizatua, ahantzia ondoren... Nik ahalegin handiz sustatu dudana beste bolada honetan historia ahantzi hura egungo eztabaidaren erdigunean jartzea lortu dugu. Beharrezkoa zen orain, bakearen eta kolonbiarren arteko hurbilketaren sinbolo bihurtu delako. Bakearen egungo eraikuntzan ekarpen handia egin dezake Carlos Pizarroren pentsamenduak.

“Matxinada armatuan ibili den sektoreari ahotsa ematea da gure helburua”

“Kolonbiako bake prozesuak ez du aurrera egingo talde paramilitarrak kontrolatzen ez badira”

FARC utzi eta beste mugimendu bat sortu zuen, M-19 gerrilla. Zeintzuk ziren bere pentsamendu politikoaren gakoak?

Oso oinarrizko gauzez mintzo zen, maiz etsai bihurtzen gaituen jarrera politikoa tartean egon gabe ere ulergarriak diren gauzez. Demokraziaz zentzu zabalean mintzo zen eta, borroka armatua aukerarik erradikalena bada ere, M-19koak “demokrazia armatua” modura definitzen zuten beren burua. Ahotsen aniztasuna aldarrikatzen zuten, Kolonbian mestizoak gara, baita indigenak, beltzak, europarrak eta iparramerikarrak ere, gure gizartea eraikitzen dugun erari erreparatuta. Osagai horiek guztiek osatzen dute gure gizartea. “Kapitalismo demokratikoaz” mintzo ziren, hau da,

kapitalaren existentzia ukatu barik nola egin dezakegun hori demokratikoagoa eta solidarioagoa. Naturaren defentsaz, hedabideen rol arduratsuaz, klaseen arteko elkartasunaz eta kulturen arteko elkarriketaz ere mintzo ziren.

Segurtasun faltagatik alde egin zenuen baina, urte batzuk erbestean igarota, une jakin batean bueltatzea erabaki zenuen. Zein zen zure helburua Kolonbiara itzultzean?

Alvaro Uriberen garaian jarrera erradikaleko hizkera gerrazalea gailendu zen: besteak ezin du existitu herrialdean. Hark boterea utzitakoan, irekialdia gertatu zen eta gutako batzuk itzuli ahal izan ginen, ordura arte debekatutako hausnarketak egiten hasi ziren eta biktimen onarpen modukoa hasi zen, eztabaida gizarteke beste sektore batzuetara zabaltzen hasi zen... Pertsonalki, etxera bueltatzea, amarekin eta inguruko jendeekin biltzea eta urte luzez partekatu ezin izan genituen uneak berreskuratzea ziren nire helburuak. Politikoki, nire belaunaldiaren ikuspuntutik, eztabaida politikorako ekarpena egiten hasi ahal izan dugu, uste baitut rol protagonista behar duela gure belaunaldiak.

Zure aita armak uzteko hautua egin zuen eta hil egin zuten. Gauza bera gertatu zen Unión Patriótica hautagaiekin. Egun, badirudi esku berberak zeudela horren atzean.

Gerran eta buruzagi politikoen hilketen atzean nortzuk zeuden argitzea –askotan izen eta abizen berberak errepikatzen dira–, hori da azken akordioen arabera sortuko den egiaren batzordeak izango duen zereginetako bat.

Orduko baldintzetan armak utzi eta oposizio politiko armagabea egiten saiatzean, aukera zuzena egin zuten?

Hala uste dut. Bakea ez da inoiz hautu erraza, tentsio handia agerian uzten duelako, eta nonbait armagabeturik, babesik gabe zaude. Baina nire aita hil zuten arren, herrialdeak asko irabazi zuen, kontinenteko konstituzio demokratikoenetakoa, herri indigenen eta afrokolonbiarren onarpena zuena. Tamalgarriena aldaketen aurkako sektore erradikalen presentzia izan zen, oraindik hor daude, gatazkaren lengoia eta indarkeria bultzatzen. Gerraren dina-

mikak ez dira aldatu Kolonbian eta, tamalez, aita hil ostean gerraren urterik gordinenak etorri ziren, erabateko degradazioa, balioak guztiz galdua. Sektore berberak daude oraindik aldaketen aurkako lanean. Kolonbiak irabazi zuen, baina noski, nik aita galdu nuen eta Kolonbiak oso prestatuta zeuden buruzagi batzuk galdu zituen, eztabaida demokratikoan ekarpen handiak egin zitzaizketenak.

Garai hartan indar handia zuten beste eragile horiek (paramilitarrak, gobernua) indarra galdu dute egungo prozesuaren testuinguruan?

Ez. Tamalez, horren erakusgarri dira azken urtean 128 buruzagi sozialen hilketak. FARCEk utzitako guneetan sartu eta kontrola ezartzen ari dira bertan. Bake prozesuak ezin izango du aurrera egin talde paramilitarrak kontrolatzen ez bada, hilketa horiek sistematikoak direla onartzen ez bada, belaunaldi berriak eta buruzagi politiko berriak babesten ez bada.

Ezkerreko buruzagi eta hautagaiak hiltzea soka luzeko tradizioa da Kolonbian, XIX. mendetik.

Bai, erosi ezinen hilketa, eztabaida demokratikoa galarazteko, herriaren tragedia handia izan da, buruzagi handiak galdu ditugu: Rafael Uribe, Eliecer Gaitán... Konstantea da gure historian.

Zer ezberdintasun ikusten duzu M-19ren orduko bake prozesuaren eta egungo FARCenaren artean?

Munduan giza eskubideen unea da eta M-19k izan ez zuen nazioarteko bultzada handia izan du azken honek. Egungo bake prozesuan mugimendu armatua-



'Pizarro' dokumentalaren afixaren ondoan, Bilbon.

ren sorreran dauden gaiak eztabaidatzen ari dira, akordioak aurrera egiten badu herrialdea aldatzeko aukerak zabalduko dira. Hala ere, prozesu hau duela 27 urte gertatu izan balitz sufrimendu handia aurreztuko genuen. Harrigarria egiten zait egun FARCEko buruzagiak ikustea garai batean Carlos Pizarrok emandako argudio batzuk ematen, orduan eurek kontrairaultzailatzat gaitzetsitako argudioak. Bestalde, M-19ren desmobilizazio prozesuak bidea ireki zuen beste zenbait mugimendu desmobilizatzeko, Kolonbian, El Salvadorren eta Guatemalan.

Nazioarteko babesa eta kontsensua gorabehera, nola interpretatzen duzu Kolonbiako gizarteak erakutsitako axolagabekeria eta erreferendumean ezetzaren ustekabeko garaipena?

Ez zuen ezetzak alde handiz irabazi, gainera %64ko abstentzio harrigarria egon zen. Eliza kristauak bake prozesua gaitzetsi dute, tamalez, eliza katolikoak bake prozesua lagundu zuen, baina gero jarrerara epel penagarria hartu zuen. Eskuin muturrak indar handia egin zuen ezetzaren alde eta gobernuak, berriz, huts egin zuen akordioak gizarteratzeko lanean.

Egia, justizia eta adiskidetzeari hitzetatik zeintzuk falta dira Kolonbian?

Denak: justizia falta dugu, zigorgabetasun endemikoa dugarako; bakea falta zaigu gerran gaudelako oraindik, hilketak ez baitira bukatu. Agian berradiskidetzeari da gutxien falta zaiguna, baina sektore askotatik etorri behar da hori, ez bakarrik biktimgandik.

Zer orbain utzi ditu gerrak zugan?

Gogoan marka asko izan dira, aldarte oneko emakumea naiz baina aktiboa ere bai, ez dut bilatzen jarrera eroso batean kokatzea. Sakrifizio pertsonalak dakartzat horrek, izan ere, 40 urte inguruko ama naiz eta bizitza lasaia estimatuko nuke, baina Kolonbia ez da herrialde lasaia, ez da erraza, hori da jaso dugun oinordekotza mingarria. Gure haurrek herrialde ezberdina jasotzea da gure ametsa eta isiltzea ez da aukerarik onena, ezin diegu irabazten utzi sarraskitu gaitzuztenei. Oroimenak eta erresistentziak ahalbidetu digute jarrera kritikoz behatzea, sormenez eta zuzentasunez jardutea. Gu ez gara inoiz izango haiek bezalakoak. ■

DATU PERTSONALEN BABESA

EUROPAKO ARAUTEGI BERRIA
Zure enpresa egokitzen
lagunduko dizugu



SIGACUS

943 453 588 · www.sigacus.com

LUAarkitektoak

hirigintza
hirigintza aholkularitza
udal planak
urbanizazioak
peritazioak
balorazioak
efxebizitza proiektuak
birgaitzeak
barne diseinua...

Rio Arga Kalea 28, 31014 Iruña
Tel 948 13 26 97
lua@luark.com

ogiaren egia



Galparsoro OKINDEGIA

Ogi biologikoak
Harri errotan xehetutako irinarekin egindako ogiak
Orántza ogiak

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074

EULIAK, LEHEN ASTRONAUTAK



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Baikonur (Kazakhstan, SESB), 1957ko azaroaren 3a. *Sputnik 2* ontzia espaziora jaurti zuten, *Laika* (errusieraz, "zaunkari") izeneko txakurra barruan zeramala. Beraz, 60 urte bete berri dira lehen izaki bizidunak Lurra orbitatu zuela. Baina horrek ez du esan nahi, pentsatu ohi den bezala, *Laika* espaziora iritsi zen lehen animalia izan zenik, ezta lehen ugaztuna ere. 1949ko ekainaren 14an AEBek *Albert II* izeneko tximinoa (zehazki, rhesus makakoa) bidali zuten lurrazaleetik 134 kilometrora. AEBetako Aire Armadaren definizioaren arabera, espazioa lurrazaleetik 80 kilometrora dago eta nazioarteko definizioaren arabera, 100era.

Baina ez *Laika* ez *Albert II* ez ziren izan muga hori gizakiek behartuta gainditu zuten lehen animaliak.

1947ko otsailaren 20an White Sands Missile Range (New Mexico, AEB) base militarrean V-2 suziria jaurti zuten, barruan, arto hazi batzuekin batera, hainbat ozpin-euli (*drosophila melanogaster*) zeramatzala. suziria lurrazaleetik 109 kilometrora iritsi zen handik hiru minutu eta hamar segundora, eta, hortaz, euli haiek izan ziren lehenak espaziora iristen. V-2 suziri hura estatubatuarrek alemaniarrei Bigarren Mundu Gerraren amaieran atzeman zieten, gerrako harrapakin gisa. Beraz, naziek ga-



RARE HISTORICAL PHOTOS

V-2 suziria jaurtitzeko prest, Cuxhavenen (Alemaia), 1945ean. Bi urte geroago, alemanei kendutako horrelako suziri batean eraman zituzten lehen animaliak espaziora.

ratutako teknologiarik esker lortu zen balentria hura.

Ozpin-eulien misioaren helburua bidaia horiek -altuerak, azelerazioak eta, bereziki, erradiazioak- duten eragina aztertzea zen. Eulien eta gizakion sistema immunologikoa antzekoak dira eta, gainera, euliak oso azkar ugaltzen dira eta, horri esker, espazioko bidaiek hainbat belaunaldiko izaki bizidunen-

gan dituzten efektuak aztertzeke aukera ematen dute.

1947ko misio hartan, behin espaziora iritsita, V-2 suziria *Blossom* kapsula jaurti zuen, eta kapsula atmosferan erori zen. Airearen marruskadurak, lehenik, eta jausgailu batek, gero, kapsula geldiarazi zuten, eta lehen euli astronautak bizirik berreskuratu zituzten, *Albert II* eta *Laika* gaixok ez bezala. ■



THE TAYINAT ARCHAEOLOGICAL PROJECT

Bost metro inguruko garrantzia

Turkiako Tayinat aztarnategian, Burdin Aroko Patina erresuma hititaren hiriburu Kunuluaren arrastoen artean, 3.000 urteko emakumezko estatua baten burua eta gorpuz-enborra aurkitu dituzte. Osorik ez dagoen arren, eta antzinaroan desitxuratu zuten arren, basaltozko eskulturak lau edo bost metro zituen. Adituek ez dakite nor irudikatzen

duen: Kubaba, antzinako Anatoliako jainkoen ama; Suppiluliuma erregearen emaztea; ala Kunuluaren fundatzaile Taitaren ama? Proiektuko zuzendari Timothy Harrisonen ustez, "estatuak argitu dezake Burdin Aroko lehen komunitateetan emakumeek pentsatu baino garrantzi politiko eta erlijioso handiagoa zutela". ■

Neguari beldurraren koloreak



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Gure egutegia udazkenean sartu da, baina zuhaitzena eta gainerako landareena sartu-ez sartu dabil. Gehienak aurten-goan beranduxeago dabilta. Landareen aurtengo zalantza horrek bizigarria eransten dio urteko espektakulu handienetako bati. Luzeagoa izango da kolore festa.

Landareak erabaki zehatza hartu behar du: negurako prestamenak noiz abiatu, alegia. Bere burua nola sumatzen duen, egun batean edo bestean gertatuko da hori. Argi kopuruaren jaisierak eragingo dio, batez ere. Horregatik, landare denak ez ditugu batera soinekoz aldatzen ikusiko, ezta espezie berekoak badira ere. Bakoitzaren erabakia da.

Erabaki horrek izugarritzko aldaketa saldoa ekarriko du. Ez du gehiago klorofilarik sortuko, hau da, landarea berde egiten duen gaia; eta hostoetan daukana eraitsi eta bere osagaiak jaso eta ondo gordeko ditu, neguari beldur gordekinak gizenduz. Hostoetan berdearen soinekopean ezkutatuta dauden beste pigmentu eta osagai batzuk azaltzen dira orduan, udazkeneko kolore berriak erakutsiko dizkigutenak. Kolore hori eta laranja karotenoek eta flabonoideek dakartzate. Gorriak, aldiz, antozianinen lana dira. Horiek sortu egin behar ditu



ADRIAN PELLETIER

landareak; ez daude hostoetan, eta, beraz, "garestiagoak" dira.

Zientzialarien aspaldiko enigma da nola European zuhaitzek batez ere hori koloreetara jotzen duten eta nola Ipar Amerikan eta Asian gorrietarako joera duten. Agidanean, gorrirako joera duten zuhaitzek izerdi bila erasotzen dieten zorriei abixua ematen diete: antozianina toxikoak sortu ditut eta jakiak erre-serbetara mugitzen ari naiz, beraz zuretzat jaki gutxi eta arriskutsua dut.

Besteetan ez bezala, European, mendikateak ekialde-mendebalde lerrokatuta

Zientzialarien aspaldiko enigma da nola, udazkenean, European zuhaitzek batez ere hori koloreetara jotzen duten, eta Ipar Amerikan eta Asian gorrietara.

daudenez, glaziazio garaietan, hotzari ihes egiteko hegoalderantzko bidean mendiak igaro ezinik landare asko hil egingo ziren, eta baita haien arerioak ere. Gero zuhaitzek kontinentea birpopulatu zutenean areriorik ez eta gorritu beharrik ez... Ba ote? ■

Basherri
GIPUZKOAKO KONTSUMO TALDE ETA KOOPERATIBAK *sarea*

HEMENGOA ETA EKOLOGIKOA, GOZATU GUREAZ!



BASERRIKO UZTA

Etxaldeak oholtza



Garazi Zabaleta

@tirikitran

ARGAZKIAK: KULTURKLK

Nork dio kontzertuetarako toki egokienak antzoki handiak direnik? Zergatik ez hurbildu gure kulturaren zati garrantzitsu diren musikariak gure kulturaren beste zati garrantzitsu diren baserrietara? Galdera horiei erantzuna emateko asmoz sortu du Baserriko Uzta ekimena EHKOLEktiboak, Paperezko Kontzertuak eta Zuzen albistari digitalaren laguntzarekin. Urtaro bakoitzeko musikari baten kontzertua antolatu dute Euskal Herriko hainbat baserritan. Azaroan eman diote hasiera proiektuari.

Musikaren bidez baserriko ateak zabaltzen

Ekologikoan ekoizten duten baserriar txikiak ez ezik, baserriar horien lanarekiko atxikimendua duten herritarrak ere biltzen dira EHKOLEktiboan. Baserriko Uzta ekimenaren ideia herritarrek osatzen duten lantaldetik atera zela azaldu du Josebe Blanco elkarteko kideak Euskadi Irratian: "Kolektiboan gauza interesgarriak egiten ari ginen barrura begira, baina lanketa hori guztia nolabait kaleratu behar genuela ikusi genuen. Eta nola hobeki modu ludiko batean baino?"

Ez dira kontzertu soilak izanen. Kontzertu aurretik hurbildutakoek baserria bisitatzeko eta bertako lanak hurbiletik ezagutzeko aukera izanen dute. Etxaldeetan zer eta nola egiten duten erakustea da helburua, herritarrak baserrira hurbiltzea. "Gure etxeetan kulturak presentzia handia dauka. Lanean ari garenean, ukuiluan edo gazta egiten, beti hor dago musika", dio elkarteko partaide eta ekimeneko lehen kontzertua jasoko duen baserriko kideak.



Urtaroz urtaro, herrialdez herrialde

Lau kontzertu antolatu dituzte Baserriko Uzta ekimenaren barruan. Azaroaren 4an izan da lehenengoa, Blancoren Antzuolako (Gipuzkoa) Pikunieta baserrian. Anariren kontzertuaz gozatu ahal izan zuten udazkeneko uztara hurbildu zirenek. Hurrengo uzta, negukoa, Etxarri-Larraungo (Nafarroa) Arbegain baserrian izanen da otsailean: Beltxaren Bikotea arituko da bertan. Rafa Ruedak hartuko du parte udaberriko uzta; maiatzean emanen du kontzertua Urduñako (Bizkaia) Santa Clara baserrian. Azkenik, Mikel Urdangarinek itxiko du egitaraua, uztalean Arbonan (Lapurdin) emanen duen kontzertuarekin.

"Jende gazte asko ari da izena ematen, eta horietako asko ez lirake baserrira hurbilduko bestela. Baserriarekin printzipioz interes handirik ez duten gazteak gerturatzeko modu bat izan daiteke ekimena", dio Blancok. Ongi etorriak izan bitez baserriarekin berradiskidetu-ko gaituzten ekimen guztiak. ■

www.bizibaratzea.eus

JAKOBA ERREKONDOREN
HITZALDIAK

Azaroak 11: Ormaiztegi

11:00etan Baratze Parkean ibilaldia eta kontsultategia.

Azaroak 15: Gasteiz

18:00etan Olarizuko parketxean *Altza Porru* komikihitzaldia Jakoba Errekondo eta marrazkilariekin.

Azaroak 16: Lezo

Landareak Lantzen aurkezpena eta kontsultategia.

Azaroak 23: Deba

18:30ean Hazitik Ekodendan, *Landareak Lantzen* aurkezpena eta kontsultategia.

Azaroak 28: Idiazabal

19:00etan Udaletxeko Aretoan *Landareak Lantzen* aurkezpena eta kontsultategia.

Azaroak 30: Berrobi

19:00etan *Landareak Lantzen* gida-liburuaren aurkezpena.

Abenduak 1: Bermeo

19:00etan *Landareak Lantzen* gida-liburuaren aurkezpena.

Abenduak 2: Beasain

Azokan *Landareak Lantzen* gida-liburuaren aurkezpena.

Abenduak 6-10: Durango

Landareak Lantzen gida-liburuaren aurkezpena eta kontsultategia.

Abenduak 12: Segura

19:00etan Kultur Etxean *Landareak Lantzen* gida-liburuaren aurkezpena eta kontsultategia.

ZURE HERRIKO EKINTZEN BERRI EMAN

edukia@bizibaratzea.eus helbidera idatzi edo www.bizibaratzea.eus webgunean bertan, oso erraz.

AGENDA OSOA NOIZNAHI IKUSTEKO

www.bizibaratzea.eus

GURE GAIAK DIRA GURE BALIOAK | PARTE HARTU ETA IRABAZI SARI HAUETAKO BAT



Aste honetako nabarmendua

"KORRONTZI DANTZAN" CD ETA DVD-A

2

Hankak arinak eta burua arinago jarriko dizkiguten doinu eta irudiak

2006an abiatu zen Mungiako taldearen seigarren diskoa dugu. Azken urte hauetan, zuzeneko emanaldietan parte hartu dute dantza taldeen koreografia bereziekin: besteak beste Edu Muruamendi-raz, Jon Maya Sein, Igor Yebra, Izaskun Iturri, Arkaitz Pascual & Nagore De Las Cuevas, Oinkari Dantza Taldea eta Eneko Gil Alberdik baliatu dute Korrontziren musika dantzarako. Emanaldi hauen bilduma ikusi dezakegu DVDan eta pausoak ikasteko azalpena ere jasoko dugu. Agus Barandiaranek sortu eta zuzendutako proiektua.



Eragile hau hobeto ezagutzeko:



KORRONTZI

www.korrontzi.net webgunean entzun ditzakegu orain arteko diskoetako kantu batzuk, bideoak ikusi, eta emanaldien agenda kontsultatu.

#dantza
#trikitia
#euskalmusika
#plaza

Azaroko sariak

1



ARGIAren
2018ko egutegia
2 ale

2




Korrontzi dantzan CD, DVD eta
liburuxka
2 ale

3



Mugarik Gaberen Euskal Herriak
kolektibotasunean eraikiz
2 liburu

4



Alain Mirandaren Txingudi
argazki liburua
2 ale

Parte hartzeko: ☎ 943 371 545 | guinea@argia.eus | www.argia.eus/gunea

Eragilea bazara, zabalkunderako materiala baduzu eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan.



Elhuyarrek ikertutako hiru proiektuak, Ikastolen Elkartea, Elkar eta ARGIA elkartu ziren Elhuyarren egoitzan, orain arteko ondorioen berri jasotzeko.

Elhuyarrek ARGIA ere ikertu du



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Kazetaria ohituta dago galderak pres-tatzen, antolatzen, egiten, eta narrazioa idazten. Baina galderei erantzutea to-katu zaio oraingoan ARGIAri. Elhuyar Aholkularitzak kulturaren, nortasuna-ren eta identitatearen inguruko ikerketa egin du oinarri hartuta Euskal Herriko hiru proiektu: Ikastolen Elkartea, Elkar eta ARGIA.

Elhuyar Aholkularitzako Imanol Az-kueren hitzetan azterketaren helburua izan da “ezagutzea identitateak nolako eragina izan duen lurraldeko gizarte-be-rrikuntzako prozesuetan, eta, bereziki, euskararen biziberritzearekin zeriku-sia daukatenetan”. Euskalgintzako hiru proiektu, oso alderdi diferenteetan la-nean jarduten dutenak, eta garai ber-tsu partekatzen dutenak; azken 40-50 urteetan aritu baitira lanean. Norbaitek galde dezake: “zergatik ARGIA, ordea? Izango da garai horretan lanean ibilita-ko beste askorik ere, ezta?”. Nik ere gal-dera horixe egin diot Azkueri, eta hona erantzuna: “Euskal hedabideetan, ARGIA erreferentzia nagusietako bat da: ibil-bide eta eskarmentu luzea dauzka, ga-raian garaiko moldaketak eginda iraun du, berritzailea izan da alderdi askotatik

begiratuta, konprometituta dago ingu-rurekin, burujabea da, komunitate han-dia eta zabala (langileak, laguntzaileak, harpidedunak) biltzen du inguruan... eta hautaketarako jarri genituen irizpideak ondo betetzen ditu ARGIAk”.

Ez dute elkarte edo talde bakoitza orokorrean aztertu, lan edo pauso zeha-tzak baizik. ARGIAren kasuan, Ametza-gaña taldearen sorrera, Interneterako jauzia eta kudeaketa-eredua izan dituz-te ardatz. Hilabetetako prozesua izan da eta hainbat bilera egin dituzte, ez baitira bi orduan kontatzekoak hiru gaiak ere.

Ondorioez galdetuta, Azkuek azaldu du hiru urteko proiektua dela, eta orain-dik bukatu gabe dagoela. Baina azter-ketan esanguratsutzat dituzten zenbait datu eskaini dizkigu, ondorioztatzen du-tenak balioetako asko errepikatu egiten direla; hala nola, proiektuen oinarrian dagoen auzolanaren kultura, parte-har-tzea, herri ekimenetik sortuak izatea, erakunde etikoak, justuak izatea, errea-litate, garai eta egoera berrietara egoki-tzen jakin izana, harreman-sareek ho-rrelako proiektuetan duten garrantzia...

Elhuyarrek aurreikusten du lan osoa datorren urtean aurkeztuko duela. ■

Sarean arrantzatutak

Irati Iciar

@IratiIciar

‘@argia-tik edaten du’ adiera berria #Samiqueen



AGENDA

Azaroak 18, Erreterian, Merkatu Soziala.

- Ekonomia Sozial Eraldatzaileko Olatukoopako kide izanik, ARGIA ere bertan egongo da, gure proiektua azaltzen eta gure argitalpen eta gainerako materialak saltzen.
- 11:00etatik 20:00etara jardunaldiak, tailerrak eta txosna-gunea izango dira.
- Zatoz ARGIAren mahaira, proiektuari buruzko iritzia trukatzera edo proposamenak egitera eta ospa dezagun elkarrekin bizitza!



Urriko sarituak

- **Kimutx:** Patxi Xabier Gonzalez Sanz (Gasteiz), Jose Garaizabal Aizpurua (Elorrio).
- **Bilgune feministaren ETEN tratutxarrak diskoa:** Onintze Guridi Tolosa (Arrasate), Mikel Garmedia Aizpurua (Bilbo), Imanol Arlujiaga Esnal (Donostia), Garazi Zabaleta Urkiola (Leitza).
- **Mugarik Gaberen Defensoras. Emakumeon eskubideen alde:** Xalbador Unzueta Mitxelena (Zarautz), Xabier Zubizarreta Lasagabaster (Arrasate), Lorea Larrañaga Azpiazu (Mutriku), Ander Epelde Ezenarro (Soraluze).
- **Ekologistak Martxanaren Euskal Herria. Ezkutuko zorra:** Eukeni Abasolo Galdeano (Gasteiz), Iñaki Idigoras Igastua (Oñati), Bergarako Udal Euskaltegia, Ana Gonzalez de Txabarri Exposito (Donostia).

EUSKADI SARIAK HAMAR URTEZ LINBOAN

Saridunak ezagutza eman baino lehen izan dira albiste Euskadi Sariak aurtan, zenbait idazle parte hartzeari uko egin diotelako. Aurreko esaldia ezaguna egiten bazaizu, normala da. 2007tik Eusko Jaurlaritzak urteko literatur uztatik ale batzuk nabarmentzeko ematen dituen sariak zalantzan daude, zenbait idazle ez diolako sinesgarritasunik aitortzen. Hamarkada oso bat pasa ondoren egoera zertan den jaso dugu.



Gorka Bereziartua Mitxelena

@boligorria

Haustura baten eszena, lehen planoan: 2007ko otsailaren 16an idazle talde batek Donostiako Boulevardean adierazi du aurrerantzean ez dutela nahi beren lanak kontuan hartzerik Euskadi Literatura Sarietan. “Sarion helburua, funtsean, egungo aginteari otzana zaion jardun intelektual eta literario bat sortzea ez ote den hasiak gara sumatzen”, dio kazetarien aurrean irakurri duten “Utikan Euskadi Sariak” manifestuak. Salatu dituzte sariak hautatzean izandako irregulartasunak; adierazi dute literatur sistema kudeatzen duen teknikari, kritikari eta epaimahaikideek ontzat ematen dituztela horrelako jokabideak; eta ondorioztatu dute, “Euskadi Sariak literaturaren kontzeptu murriz bat hedatzen” laguntzen dutela. 30 idazle baino gehiagoren babesa dauka testuak. Jaurlaritzak ematen dituen sari literarioen historia hein batean baldintzatuta geratuko da orduetik: hamar urte pasa dira, baina aurtan bertan, Boulevardeko agerraldian ziren hiru idazle, finalistak artean zeudela jakitean, uko egin dute publikoki –Josu Landak, Oier Guillianek eta Koldo Izagirrek–. Kinieletan agertzen ez zen idazle bati eman diote euskarazko literaturari dagokion saria, manifestu haren sinatzaileen artean zegoen Asier Serranori, *Linbotarrak* poema liburuarengatik.

Ukoen zerrenda luzea da azken hamarkadan. Flash batzuk: 2008an Eider Rodriguezek, Uxue Alberdik eta Koldo Izagirrek esan zuten ezetz finalista zirela jakitean; 2009an Iñigo Aranbarrik; eta hor dago 2015ekoa ere: *Su zelaia* nobilearengatik jaso zuen saria errefusatu zuen Mikel Peruarenak. Izan da hasieran parte hartzeari ezezkoa eman eta handik urte batzuetara jarreraz aldatu duenik. Eta bada orduko posturari are irmoago eusten dionik ere. “Iritzi berekoa naizela esatea gutxi da”, dio Jon Alonsok, zeinaren artikulu bat jo daitekeen “Utikan” manifestuaren aurrekaritzat. 2007ko ARGIAren Euskal Kulturaren Urtekarian publikatu zuen, kontatuz, besteak beste, Euskadi Sarietako epaimahaikide izan zen aldi batean, finalistak erabakitzerako orduan, Jaurlaritzako Kultura Saileko funtzionario batek nola manipulatu zituen botoak bere begien aurrean. “Hain zabarko eta lotsagabeki egindako tranpa baten aurrean isildu izan banintz, ez niokeen nire buruari sekula barkatuko”, azaldu du.

Hamar urte geroago, “Utikan”-ek eraginik izan ote zuen galdetuta, Alonsok baietz dio: “Izenpetu genuen gehienon jarrera bere hartan dagoela esango nuke”. Manifestuarekin bat egin ondoren saria hartu duten idazleak badirela aitortu arren, horrek ez du galarazi, bere ustez, aldarrikatu zenaren inguru-

ruan “nukleo koskor bat” eratzen joatea eta “euskal komunitate literario kontziente eta aktiboena” jabetzea nukleo horren existentziaz. “Harro nago beren orduko jarrerari eutsi dioten idazle guztiez, eta haiei dordun eta aldi berean eskertua natzaie”.

Errebobinatu 2007ra. Apirilean zerbait gertatuko da: manifestua aurkeztu baino lehen banatutako azken Euskadi Sarietako epaimahaiburuak, Jon Kortazarrek, erabaki du Espainiako Kritikaren Saria Alonsori ematea narratiba arloan *Erretzaileen eremua* liburuarengatik; eta Koldo Izagirreri poesiakoan, *Rimmel*-engatik. Bi idazleak “Utikan”-en sinatzaileak direla kontuan izanda, sutea itzaltzen saiatzeko keinua dirudi. Hauspoa emango dio: Izagirrek publikoki adieraziko du Kritika Sariari ere uko egiten diola eta gainera salatuko du “Euskadi Saria bera baino mekanismo ilunagoz” aukeratzen dela –momentu hartan Kortazar da irabazlea aukeratzeko dagoen epaimahai guztia–.

Ezusteko notiziak ordura arte urtez urte errepikatzen zen zeremonia gutxi gorabehera errutinarioan: urte entretenigarria izango da kultura sailetan ari diren kazetariarentzat.

Auzitegi Nazionala epaimahai literario gisa

Gernikako Arboren *time-lapse* bat,



PATXI GAZTELUMENDI

Edorta Jimenez 'Utikan Euskadi Sariak' manifestua irakurtzen
2007an Donostiako Boulevardean, agiriaren beste sinatzaile batzuk atzean dituela.

udazkenean hostoak erortzen, neguan elurtuta, udaberrian loretan eta udan eguzkitan; eta horrela buelta pare bat, 2009ra iritsi arte. Patxi Lópezek lehen-dakari makila hartuko du poesia errezitatuz, eta gobernu berriak erabakiko du Euskadi Sariekin zer baitiferentea egitea. Oinarriak aldatu eta aurrerantzean idazleek edo argitaletxeek aurkeztu beharko dituzte lanak baloratuak izan daitezten. Neurri hura hartzen urteko produkzio osoa kudeatzea ezinezkotzat jo ondoren, orduko Kultura sailburu Blanca Urgellek esplikatu duenez: "Esperientzia positiboa izan zen, bai epaimahaiantzat, baita saria kudeatu behar duten Jaurilaritzako langileentzat ere". Bere esanetan, erabakiak ez zuen zerikusirik izan "Utikan"-ekin, honek "aurreko gobernuetan izandako gorabeherak salatzen baitzituen eta ziur naiz 2007an gu ere ados egon gintezkeela manifestuak esaten zituen gauza batzuekin". Aldaketarekin administrazioak bere buruari aurreztu zizkion titular deseroso batzuk, tarte batez inork ez ziolako finalista izateari ezetz esan, ez aurkeztearekin aski izanda.

Baina gutxi fidatu sari literario batez: espero ez duzunean hasten da kapitulu polemiko berri bat. Igo musika topera, 2011. urtea: Joseba Sarrionandiaren *Moroak gara behelaino artean?* jo du epaimahaiak urteko saiakera onentzat.

Baina Kultura Sailak erabakiko du sariaren parte ekonomikoa ez ematea, "sari-dunak justiziaren aurrean bere egoera erregularizatu artean". Eta Espainiako Auzitegi Nazionalak adierazi arte lurretako idazlearen kontra ez daukala ezer -esateko modu bat da-, ez zaizkio emango dagozkion 18.000 euroak.

"Bagenekien ekaitz itzela ekarriko zuela, eta mugimendu horrekin Sarriornandia deabrutzat zutenen amorrua piti bat ematea lortu genuen, heroizat zutenen amorrua ezinbestean pizten genuen bitartean", azaldu du Urgellek. "Okerrena zen familiaren mina berriztatzen ikustea hedabideetan izan zen alde bietako iskanbilagatik. Mundu anker batean bizi gara, betiere 'nirekin' edo 'nire kontra' kokatzeko agintzen dizun mundu batean". Erabaki horren atzean izan ziren presioez galdetuta, ziurtatu du ez zela "X jaunik" izan. Eta legegintzaldiko une hunkigarrien artean dauka polemikaren ondoren Sarrionandiaren familia sari-banaketa ekitaldian izan zen unea.

Jokaldiaren errepikapena

Egin dezagun trantsizio suabe bat, amaitu da legealdi hura, itzuli da EAJ Jaurilaritzara eta buelta lehengo eskemara. Norberak lanak aurkeztu ordez, argitaratutako guztia baloratuko da berriaz 2012tik. Joxean Muñoz Kultura

» JON ALONSO:

"Utikan manifestua izenpetu genuen gehienon jarrera bere horretan dago"

» JOXEAN MUÑOZ:

"Ez dut uste desadostasunak agerian egotea txarra denik, kultura ez bada debaterako eremua, gureak egin du"

sailburuordeak esplikatu duenez, "sari nazionala izatea" baita helburua; eta horretarako, produkzio osoa hartu behar da kontuan, bestela egiteak lehiaketa bihurtuko lukeelako.

Baina berriz ere agertuko dira ukoak, sonatuena 2015eko Peruarenarena, sariari ezetz esatearekin batera literaturgintza sustatzeko bestelako neurriak proposatuz. Muñozek defendatu du sariak produkzio literarioari ikusgarritasuna emateko politikaren parte direla, baina ez alor horretan egiten diren bakarrak. Aurten, adibidez, gazte-literatura sustatzeko deialdi berria jarri du abian EAEko Gobernuak. Helduen literaturarekin antzeko zer baitegitea aztertutun arren, deialdiak urtebeteko epe-muga izateak zaildu egiten du halakorik martxan jartzea bere esanetan: "Normalean nobela bat idazteko, *Twist* bat adibidez, urtebete ez da nahikoa, askoz denbora gehiago behar da".

Idazleek uko egiten dutenean sortzen den egoeraz, Muñozek honakoa dio: "Fokua jartzen denean liburu batzuen gainean eta literaturaren gainean oro har, fokua jartzen da hor egon daitezkeen desadostasunen inguruan ere. Eta nik ez dut uste txarra denik dauden posizio horiek, desadostasun horiek eta kritika horiek agerian egotea. Kultura ez baldin bada debaterako eremua, gureak egin du". Idazle gehienek saria po-

zik hartzen dutela gaineratu du. Eta ez duela jaso kultur politikak diseinatzean mintzakide dituzten elkarteen aldetik sariak desegokitzat jotzen dituen mezurik. “Eragile batzuegandik bai –erantsi du– eta errespetuz hartzen dut, eskubide guztia daukatelako”.

Kontua da, pelikulak segitzen duela, gutxi gorabehera, duela hamar urte zegoen bezala, errutinen faktorea gehituz. Eskema batekin esplikatzeko, Euskadi Sarien ziklo berria da: 1) finalistak ezagutzea, 2) idazle batek edo batzuek uko egiten dutela adieraztea eta 3) urtearen arabera a) uko egin duen idazlea berdin-berdin saritzea edo b) beste bati ematea golardoa. Sorpresa gutxiko *remake* bat. Ez dago gidoi berririk, Jaur-laritzak horrela izango dela onartzen duenez eta parte hartu nahi ez duten idazleek ere bai, itxuraz –“ez zait interesatzen sariak eraberritzen edo hobetzen ahal diren edo ez. Ez da nire afera. Sariak literaturari buruzko kontzepzio jakin baten porrotaren irudia dira”, dio Jon Alonsok–.

“Hau da dena lagunok”, esan beharko. Sartu amaiera-kredituak. ■



IREKIA

» **BLANCA URGELL:**
“Bagenekien
Sarrionandiaren sariak
ekaitz itzela ekarriko zuela”

Bingen Zupiria (Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua), Asier Serrano (literatura alorreko irabazlea), Arantxa Urretabizkaia (saiakera alorreko Euskadi Sariaren irabazlea) eta Joxean Muñoz (Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuordea).

USURBIL

azaroak 9. Osteguna 19:30
Zuriñe Hildagorekin berriketan
HITZALDI SOLASALDIA

azaroak 11. Larunbata 20:00
Ane Labaka (Bertsolaria) eta Beatriz Egizabal (Antzerkilari / Ipuin Kontalaria)
ANTZEZLANA:
ERRADIKALAK GARA

Noaia!ren KULTURALDIA 2017
Azaroaren 3tik 12ra

azaroak 10. Ostirala 19:30
ORBELDI DANTZAN

azaroak 12. Igandea 19:00
JOSEBA TAPIA eta BESAMOTZAK taldearen KONZERTUA


azaroak 3tik - 12ra:
ERAKUSKETA:
ALEJANDRO TAPIAREN LANAK

azaroak 11. Larunbata 20:00
ERRADIKALAK GARA

azaroak 12. Igandea 19:00
JOSEBA TAPIA eta BESAMOTZAK taldearen KONZERTUA

noaia

TAPIAREN FAMILIA ETA INGURUA · USURBILGO KANTU TALDEA · ORBELDI DANTZA TALDEA · BOTA PUNTURA



Erlea Maneros Zabala

Markoak erakusten duena

BAILARAREN AHOTSA (2017)

Bideo digitala. 4 ordu pasa



Xabier Gantzarain
@gantzarain

Azaroaren 4an bukatu da erakusketak Los Angeleseko Redling Fine Art galerian. Markoak erakutsi ditu han, hautsiak, osatu gabeak, herrenak, soltatuak. Markoekin batera erakutsi du lau ordu pasako bideo hau ere: *The Voice of the Valley*. Hor goiko *frame* horretan artista ageri da, markoak egiteko egurrak prestatzen. Barrokoan-eta egiten zuten bezala, artistak zurari igeltsu zuria ematen dio, leuntzeko, garai batean urrea eman aurretik egiten zen prozesua errepikatuz, markoaren materialtasuna bera agerian jarritz. Azken urteotan Joshua Tree basamortuan bizi da Erlea Mane-

ros Zabala (Bilbo, 1977ko martxoaren 17a), han sortu ditu lan hauek, bere estudioan.

Artista egunero joaten da estudiora, errepikakorra da bere lana, mekanikoa, aspergarria ia. Hartzen ditu egurrak, mozten ditu neurrian, lixatzen ditu mimo handiz, ematen die igeltsua gero urrea eman behar balie bezalaxe, eta bitartean irrati lokala entzuten du, “*libertarians*” deitzen zaient jendea, sekulakoak botatzen uhinetan. Horixe da bideoan ikusi eta entzun daitekeena. Artista markoak dekonstruitzen, eta irratia sortzen duen marko ideologikoa erakusten aldi berean.

“Herri txiki batean bizi naiz”, dio artistak, “eta hau beste mundu bat da. Ameriketako Estatu Batuetan arte munduan dabilen jendeak ez daki hau badenik ere, ez du ezagutzen, arrotza egiten zaie erabat”. Erlea Maneros Zabalak inoiz entzun ez duten hori entzunarazi nahi die, markoak erakutsi, errealtatea zedarrizten duten markoak. “Artisten artean ere egon da joera bat mendebaldeko basamortua leku huts eta utopiko batekin lotzeko, natura puru batekin, baina basamortuan jenda bizi da, eta hemengo giro soziala oso gogorra da, zerikusi gutxi du leku utopiko horrekin”.

Begira iezaiozu markoari. ■

Zergatik den astakeria hutsa **espainiar kateetan** atzerriko telesailak ikustea

Askotan galdetu izan dute AEBetan sekulako arrakasta izan duten telesailak Espainiako telebista kateetan ematen dituztenean, zergatik egiten ote duten porrot. Argudio ugari okurritzen zaizkit egia esan. Baina labainketa horien kontrako kasuak topatzen ditudanean, *The Big Bang Theory*, *CSI*, *House* edo *Bones* adibidez, alegia, arrakasta izaten jarraitzen dutenak urtetan parrila horren barruan igerian dabiltzan arren, nire buruan galdera bat pizten da: zergatik hauek bai eta besteak ez?



Gaizka Izagirre

@Gaizka_Izagirre

Duela bi urte sekulako saltsa sortu zen sare sozialetan, La Sexta telebista kateak *True Detective* telesailarekin egin zuenaren ondoren. 2015. urte hasieran, telesail bikain honen lehen denboraldiko atal guztiak emitituko zituztela iragarri zuten. Kontuan hartu, Ipar Amerikan estreinatu eta urtebete geroago eman behar zutela. Ia mundu guztiak izan zuen, beraz, lehenagotik ikusteko aukera; baina tira, utz dezagun hori alde batera, sakri-legioa beste bat izan baitzen. Ekoizpena ikusi duzuenok jakingo duzuen moduan –ikusi ez duzuenok ere agian entzun go zenuen– laugarren atalaren azken zatian, teknika eta koordinazio erakustaldi paregabea den sekuentzia-plano zoragarri bat ikusi dezakegu. Batzuek diote pantaila txikiaren historian azken urteetan egin den planorik onenetari-koa dela –sekuentzia grabatzen hasten den unetik lehen mozketak gertatzen den arte, kasu honetan, ia 7 minutuko tarte dago–. Errodaje horren parte diren teknikari eta langile guztientzat –aktoreak

barne jakina– sekulako lana eta sinkronizazio ariketa berdingabea suposatzen duen unea. Akats bakar batek sekuentzia osoa hasieratik grabatzea bultza dezake, horrek ekar dezakeen estresa, nekea eta batez ere diru-galera handiarekin.

Ba, atzean dagoen lana kontuan izanik, La Sextari ez zitzaion ezer hoberik bururatu plano horren erdi-erdian mozketak bat sartu eta 7 minutuko iragarkietarako tarte gehitzea baino. Webgunean, gainera “Sei minutuko sekuentzia-planoa, kapituluaren urrezko amaiera” titularrarekin iragarri zuten. Beraiek nahi izan zuten zatia moztu eta pikutara bidali zuten ikusleak oso-osorik ikusteko pentsatua zegoen unea. Atala, beraz, osotasunean gozatzea ezinezkoa bihurtu zuten. Azken urteetan desastre horren pareko adibide ugari topatu daitezke, –*Lost* izan liteke argiena–, ez agian mozketengatik, baina bai ordu/egun aldaketa etengabeen erruz, atalen errepikapenengatik edo horiek promozionatzeko sareak spoilerrez betetzeagatik.

Audientzia datuetan ikus daiteke ekoizpen hauek jasaten dituzten tratu txarren ondorio argiena. *Downton Abbey* ezagunak, adibidez, Erresuma Batuan, batez beste, 10 milioitik gorako datuak izaten zituen. Antena 3 kate espainiarrean aldiz, ez zuen milioi bat ikusleren muga gainditzea lortu. Edo *Mad Men* eta *The Sopranos*. Nazioartean sekulako kritikak jaso ondoren eta mundu osora inongo arazorik gabe esportatzea lortuta, Cuatro eta berriro La Sexta telebista kateek ordu txikitari programatzeko burutazio penagarria izan zuten, goizeko 1:30ean alajaina. Alegia, atzerriko produktu bikain hauek ez dituztela *prime time* tarteak betetzen, gehienetan, *late-night* eremuan igerian ibiltzen dira, lehen lerroan, nola ez, telesail espainiarrak kokatuz.

Baina kontuz, hasieran esan dudana bezala, bada aparteko talde txiki bat, telebista kateetako arduradunen hanka-sartze eta lardaskeria guzti hauen eraginak apenas nabari dituenen. *Castle*, *The Big*



'The Sopranos' bezalako maisulan bat goizeko ordu txikitik emititu bazuten, zer espero daiteke?

Bang Theory, CSI, House, Criminal Minds, Bones... Onak ala txarrak diren eztabaida alde batera utziz, gehiago ala gutxiago, baina urtetan mantendu dira, eta erne, ez pentsa hauek parrilla horien ordu-tegi eta egunetan gora eta behera aritu ez direnik. Zergatik mantentzen dira ikusleak fideltasunez, orduan, telesail hauekin batera? Argibidea oso erraza da. Telesail hauek guztiak prozedimentalak direlako. Telesail prozedimentalak atal independenteak dituztenak izaten dira. Alegia, atal bakoitzaren hasieran azpi-trama bat irekitzen da, kasu bat, pertsonaia berekin. Baina amaieran istorio konkretu hori itxi egiten da. Horrek ez du telesailaren jarraipen zorrotz eta finkoa eskatzen, neurri batean behintzat atalak solte ikusteko aukera dagoelako. Eta hementxe gakoa, programazioan etengabe dantzan dabilen telesail haue-tako bat gustuko badut, baina aldaketa horien erruz kapitulu bat galduz gero, ez da ezer gertatzen, ez dutelako denboraldi oso bateko hari bakar bat.

» Telesail prozedimentalek funtzionatu dute Espainiako kateetan, kapitulu bakoitzean hasi eta bukatzen den trama daukatenak

» Publizitatera joateko mozten diren sekuentziak, ordutegi aldaketa etengabeak... zergatik jokatzen dute horrela Espainiako kateek?

Bikoizketaren gaia ere, gainetik pasa nahi ez dudana puntua iruditzen zait. Geroz eta ikusle gehiago gara jatorrizko herrialdetik datozkigun telesailak emititzen diren erritmoan ikusi nahi ditugunak. Duela urte batzuk gazteak zirela esango nuke, baina gaur egun, geroz eta pertsona heldu gehiago ari dira batzen jatorrizko hizkuntzaren defendatzaileren armadara.

Dena den, Netflix, HBO edo Amazon bezalako plataforma digitalen etorrerari esker, lehen "ohiko supermerkatuetan" bakarrik lortu zitezkeen telesail horiek, orain edozein motatako ikuslerengana erraztasunez iristea lortu dute. Denboraldiak txukun-txukun ordenatuta, iragarkirik gabe, jatorrizko hizkuntzan eta nahieran ikusteko aukera eskainiz. Atzerriko telesailak telebista konbentzionalen ikusteko aroa itzaltzen ari da. Baina zer nahi duzue esatea, orain arte kudeatu diren bezala kudeatzeko, ez zait hain albiste txarra iruditzen. ■

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Itzuli izan balitz zer



Igor Estankona

Martin Bidaurrek-eta gura izan zuten muntatu beste Lubaki Banda bat, baina lainoen zain geratu ziren gero. Martin Bidaurrentzat itsaso zikina da izara gris bat, *Itzulera* da poema liburu bat joan-etorrikoa, etengabe dabile-na lehenaldira eginez etorkizuna barruntatu nahian.

Uneke gogorarazi dit Peru Iparragirre (Okzitaniako Tolosa, 1996) eta haren kamera eta haren gelatinan errebelatutako argazki aldakorak. Nostalgia arako adina justu-justu leukake Peru Iparragirrek, eta jada etorkizuna botako luke faltan liburu honetan. Baina estetikaren zentzu klasikoa dauka liburu honek era berean, Bordaxuri akordatu eragiten duena.

Inoiz ez ditu esaten gauzak zehatzegi Martin Bidaur delako honek, eta agian horregatik lortzen du zorrotasun hain harrigarria: "Gaurtik aurrera ez dut/ sekula gehiago izanen etxerik/ motxila honetan ez dira/ gurasoak kabitzen/ haiekin zer egingo ote duten/ iluntzean naramate dagoeneko/ inora ez doan bidean behe-*ra*". *Itzulera* erraz ulertzen den bere baitan bildutako misterio bat da. Itzulera den ihes eder horretan idazten du poetak hemen geratu gura duela.


Barne gatazkak eta beldurrak, bizi-tza eta heriotzaren presentzia, dena da hemen ahaztura, gogoratzearen bidez: "Haur denboran/ eskola kato-likoan/ ikaskide batek". Poema oinaze-tsu eta trankilen bidez pertsonala dena kontatzen du, eta hein berean kontatzen du mundua.

Itzulera

MARTIN BIDAUR

Susa, 2017

Martin Bidaur idazlea. Sortzetiko izenez Peru Iparragirre da (Tolosa, Okzitania, 1996).



Lirismo errealista biluzi hori, Parisi dedikatuturiko zatian batez ere, azkenaldian irakurri dudan poesia ondrratu, gordin eta ederrena da. Testimonioa uzten du haurrarena, nerabearena eta poesia sano heldu batekin gizonarena. Testimonioa, borrokarena eta ezinbestean aurretik eroan dituen gauzena. Irakurlea inarrosi ez, baina apurka-apurka daroa ezintasunen mundu batera, tokatu zaigunaren kontakizun etsira.

Galeretan hil zirenen kontrara, Martin Bidaur errenditzen zaio bizitzari eta aurretik daukagun bideari. Azken ahapaldietan galdetzen dio bere buruari: "Behin eguzkitan erreta/ ba al dago itzaletara/ itzultzeko modurik// alderantzizko bideak/ eraman-go al nau/ inora". Galdera ikurrik behar ez duten galderez beterik dator *Itzulera*. *Itzulera* da liburu bat esperantzari idatzia ernegaziotik. ■

» DISKOA

Liberen atmosferan



Joxi Ubeda

Teklatu doinu leunak, ahots fina, gitarraren eta txeloaren marrazki xumeak eta politak... Liberen atmosferaren osagai batzuk dira. Erritmo oinarri sendo baten babesean aritzen diren teklatuak eta ahotsak dira Libe taldearen bereizgarri nagusiak, lehenengo lanean erakutsi zuten bezala, eta bigarren disko honetako kantuek xehetasun eta ukitu ugariarekin jantzi dituzte. Arretaz entzuteko lana da, behin baino gehiagotan, bere edukiaz ongi jabetzeko.

Rock kutsuko musika lasaia da, iradokitzailea, melodia ederrekin jantzia, eta tentsioa ere transmititzen duena. Libe Garcia de Cortazarrek barruak askatu ditu, bere desioak eta barruan daukana atera du. Besteak beste, ateratzeko, bizitzeko eta bizitzaz gozatzeko gogoia, barne hustasuna gaintzeko nahia, aurrera egin ahal izateko kemenaren beharra, lagun bat izatearen premia, maitasunaren gazi-gozoak eta izateko zentzuaren gaineko kezka transmititzen dituzte kantuek.

Neubat, Sorkun, Ekon eta Izaki Gardenak taldeekin aritua da Libe Garcia de Cortazar, Libe taldea sortu baino lehen bere kantu propioak interpretatzeko. *Ihesaldi handia* (Bonberenea Ekintzak, 2014) da kaleratu duen lehen diskoa. *Ilargia erori da* bigarren lana aurrekoaren jarraipena dela esan daiteke, zertzelada desberdin batzuekin, eta "helduagoa", kantak landuagoak daudela eta taldekideek zer egin nahi zuten argiago zutela suma baitaiteke.

Diskoa burutzeko parte hartu dutenen lana aipagarria da, nabarmena da eskarmentu handiko musikariak direla, gustu onekoak. Libe

Ilargia erori da

LIBE

Bonberenea Ekintzak, 2017



Garcia de Cortazarrez gain (ahotsa, teklatuak), Txus Villalabeitia (gitarra), Dani Arriabalaga (bateria) eta Karlos Osinaga (baxua, ekoizpena, grabazioa eta nahasketak) Tolosako Bonberenea estudioan aritu dira grabazio saioak egiten. Maite Arroitauregik txeloa jo du bi kantutan eta Jon Basaguren abesten aritu da kantu batean. Halaber, Jon Basagurenek berak hitzak idazten lagundu dio Libe Garcia de Cortazarri.

Diskoa aurkezteko emanaldiak egiten hasi dira jadanik. Aukera ederrak Liberen atmosferan bertatik bertara murgiltzeko. ■

Libe taldeko kideak.



Beste zera hori

MAULE-LEXTARREKO FINALAURREKOA

Azaroaren 4an. Saioko sailkapena:
Beñat Gaztelumendi (694,5 puntu)

Julio Soto (668,5)

Nerea Ibarzabal (663)

Etxahun Lekue (656,5)

Nerea Elustondo (637,5)

Beñat Iguaran (604)



Kepa Matxain

@kmatxain

ARGAZKIA: ALBERTO ELOSEGI / XDZ



Golik gabeko partida Maulen. Euri jasak eragindako putzuek soropila trakestu zuten. *Jogo bonito* gutxi, Ingalaterrako joko zuzenik ere apenas, eta harmailak itzalita, zoramen faltan. Deus nabarmentzekotan, esan dezagun Beñat Gaztelumendi atzealdean sendo aritu zela, ohi duen segurtasunez, eta Nerea Ibarzabalek egin zituela bat-biko batzuk hegalean. Baina estatistikek garbi diote: jokalariek ez zuten errematean asmatu. Bakarkako jokaldiek eman zizkioten hiru puntuak Gaztelumendiri, eta pentsa liteke honezkero hurrengo partidan duela burua. Besteek aurkariak egiten dutenaren zain egon behar.

Galdetuko duzue zertara datorren kirol kazetaritzako hizkera hau, eta arrazoi, ez dira moduak, baina Mauleko saioko distirazko une bakanetako bat futbolarekin egindako alderaketa bat izan zen, zortziko txikian, Gaztelumendik, Beñat Iguaran tabernariari kantu bera behin eta berriro eskatzen ari zitzaien mozkorrak, bota zuenean: *Hamargarrenez jarri / zazu 'Zenbat gara' / hamaika izateko / bakarria falta da. Osterantzean, giroa hotz samarra izan zen.*


Etxahun Lekue apal samar, seiko motzean eta kartzelan gora eginez; Beñat Iguaranek ez zuen eguna eduki; Gaztelumendi seguru, baina erabat askatu gabe; Ibarzabal bizi eta ale onak utziz, seiko motzean gorabeheratsuago; Julio Soto zuzen, baina distirarik egin gabe; Nerea Elustondok, azkenik, utzi zituen ale on batzuk, nahiz eta ofiziorik ez borobildu. Egiaz, ofizio borobilik ez zen izan, batek asmatzen zuenean besteak egiten zuen pott, eta ziurtasun faltak kutsaturik, bertso gehienak bidean gelditzen ziren, eta beste batzuk ez huts egitera kantatutakoak izan ziren, “egokitasuna” deitzen zaion kategoria zuzen bezain nekagarri horretan sartzeko modukoak. Nabarmena egin zitzaidan, oro har, zortziko handiko lanetan, eta seiko motzean Julio Sotok eta Beñat Iguaranek egindako saioan.

“Egokitasuna” diot, edo politikoki zuzena bertsoara eramana. Epaitu behar dira bertsoak diskurtsiboki ere, aztertu behar da mikrotik botatzen denak ze diskurtso erreproduzitzen duen eta zer jartzen duen zalantzan –eta zer esanik ez, Kattalin Minerrek kronika batean

aipatu bezala, entzuleok txalo zeri jotzen diogun-. Baina susmoa daukat azterketa hori egitean azkar detektatzen ditugula mezu desagokiak, eta, aldiz, onberagoak garela hanka sartzerik gabeko gidaliburuko mezuekin. Bertsoak, ordea, ona izango bada, beti bilatu behar du ertza (ze, gainera, ez baitago mezu bera botatzeko bi modu. Ezin da gauza bera esan bizi eta astun. Esateko moduak determinatzen du mezua. Zerbait desberdin dioena zerbait desberdina esaten ari da).

Bertsolari bati galdegin dakiokkeen gutxienekoa da ebidentetik haragokoa esaten saiatzea, beste inork botako ez duena botatzen saiatzea. Horregatik, saritu behar litzateke, esaterako, ofizio batzuetan eta puntu erantzunetan Ibarzabalek izandako jarrera jolastia. Saritu behar litzateke zerbait desberdina esateko asmo hutsa bera, gerora bertsoa biribiltzea lortu ez arren. Finean, saritu behar litzateke bertsolariak bakar egiten dituen ezaugarri zehazkabea: intetzioa, nahia, jarrera, edo epai irizpideetan garbi izendatuta behar lukeen beste zera hori. ■

Gurutzegrama



Ezker-eskuin:



1. Baratze landare lekadunak, hazi handi, luzanga eta zapalak dituztenak. Zorraren seinale.
2. ... egin, agurtu. Sama, iduna. 3. Sar-jalgi. 4. Gai bati buruz gorputzak agertzen duen erreakzioa. 5. Arraza. Azkenik, azkenean. 6. Geziak jaurtitzeko arma. Iraultzera behartu.
7. Belaontzi txikien azpialdean ezartzen den oholak. Rabateko herritar. 8. Argitara atera. Saiatzeara. saioa.

Goitik behera:

1. Lau eta bat. Bokal errepikatua. 2. Edo. Ugaztun karraskari, jauzika arin ibiltzen dena. 3. Berantiar. 4. Egonezin, nahasmendu. 5. Infusio bizigarria. Kontsonante bikoitza. 6. Pinu mota. Beldur bizi. 7. **Gipuzkoako udalerria (argazkian)**. 8. Erliijo katolikoan, meza emateko eskumena duena. 9. Holmioaren ikurra. Errenta, alokairu. 10. Joan den urtea. Enara. 11. Zelaia, toki laua. 12. Moduak. 13. Burdinazko lokarri. 14. Begirunerik gabe jokatzeko dena. 15. Euritik babesteko jantzi irazgaitza.

Esaera zaharra

Koka ezazu puzzlearen pieza bakoitza bere tokian eta esaera zahar bat agertuko zaizu.



Anagramak

Hitz bakoitzak aurrekoak dituen hizki berak ditu, bat izan ezik, baina bestelako hurrenkeran.

Ospea, entzutea
Su-etena
Haurra, umea
Familia
Hazama, unide
Ukan
Seinale
Garaiak, aldiak
Emakume gaztea
Irri, burla
Murmurikatu
Jarri, jesarri
Larri

[illegible]

Sudokua

Erraza

4		7		9	6	1		3
		9					2	6
	6				1			4
	1	3		2	7			9
			1		8			
2			6	3		8	1	
6			3				4	
9	4					3		
5		1	9	6		2		8

Zaila

6								
	1				5	7	3	9
		5	1		3			
8			2	3				
	9	1				6	2	
				4	1			8
			7		4	9		
5	3	7	8				1	
								5

Ebazpenak

“Gozgort! Gorri ziora!”
 “Gau gorri ongiat!”

ESAFERA ZAHARRA

SERIO

ESERI

ERASI

UNION

JNEAR

UNION

EDUKI

NUDE

SEINHA
SENDI

MENIA

OMENA

GRAMAK

ELIOT, J. C. NATE

gai a. o. wpaiza

L. J. DELAIKOU.

PRINCIPAL 'r

'nyw : o'zov

Leboa.

Onintza Odriozola Irizar. Historia hurbilean arakatzen



Euskal Herriaren azken hamarkadak ezin dira ulertu ETArri aipamena egin gabe. Erakundearen lehen urteak aztertu ditu Onintza Odriozola Irizarrek bere doktorego tesian; fenomeno sozial zabal samarra izan zela ondorioztatu du, eta diskurtso hegemonikoak baliatutako kontakizuna “izebergaren punta” besterik ez dela dio.

“ETA euskal gizartearen zati handienera eragin zuen lurrikara izan zen”



Jon Ander de la Hoz

@delarregi

ARGAZKIAK: BATISTE EZEIZA

Diskurtsoa, borroka-leku

“Uste dut estaturik gabeko nazio mugimenduontzat –eta gaur egun batez ere independentistontzat– bereziki garrantzitsua dela ditugun bitartekoe-kin gure kontakizuna eraikitzea; azken batean, historiaren diskurtsoa borroka-leku bat da, eta errealtateak eta diskurtso politikoak eraikitze eta legitimatze erabiltzen da. Horretan ari dira, hain justu, zenbait erakunde, elkarte eta fundazio. Beraz, Euskal Herrira etorrita, iruditzen zait ETaren fenomeno ahalik eta modu integralenean aztertu eta azaleratu beharko genukeela”.

Zerk bultzatu zaitu ETaren sorrera aztertzea?

Konturatu nintzen ETArri buruz egin diren ikerketetan gauza batzuk beste batzuk baino gehiago landu direla: adibidez, ETaren ideologiari eta estrategiari buruzko historia politikoa nagusitu da. Gure ustez oso garrantzitsua da, ETA bere osotasunean ulertzeko, bere eragin soziala eta kulturala ere aztertzea, beti ere, esparru politiko eta ideologikoarekin lotuta.

Zein metodologia erabili duzu lana egi- teko?

Gaiaz idatzita zegoena landu dugu, ETaren dokumentu zaharrak nahiz beste egi- leen lanak. Horrez gain, lehen eskutik ere jaso dugu informazioa, ETAn edo haren inguruan militatutako hamasei gizon-e- makume elkarriketatu ditugulako.

Zein hipotesitatik abiatu zenuen lana?

Gure susmoa zen ETaren inguruan ETA- ko militante ez ziren pertsona ugari an-

tolatu zela: erakunde-egitura organikoa gainditzeko antolaketa eta harreman-sare gisa ulertuta. Horri deitu diogu ETA mugimendua. Aldi berean, jakina da testuinguru hartan ekimen ugari jarri zela abian Euskal Herrian, bai maila soziopolitikoan eta bai maila kultural-lean. Dinamika guzti haren zati handi bat, behintzat, ETaren diskurtso eta es- trategiarekin batera edo bere inguruan – mugimendu horretan –, elkarreaginean, artikulatu zela susmatzen genuen.

Zein dira harreman horiek?

ETaren fronte kulturalak, adibidez, ha- rremana izan zuen euskalgintzarekin. Euskara batuaren sorrera, ikastolak, kantagintza... Esan genezake presen- tzia eraginkorra izan zuela ETak edo etakide askok euskalgintzaren esparru guztietan. Txillardegia da adibide argie- na. Askotan ETak berak –haren fronte kulturalak– bultzatu zituen kultur eki- menak, edo elkarlanean aritu zen beste batzuekin.

Mugimendu horiek uler daitezke ETaren dis- kurtsorekin testuingurua aintzat hartu gabe? Euskara eta euskal kultura bere diskur-



*"Euskara bere diskurtsoaren
erdian kokatu zuen ETAK,
arraza alboratu eta
euskalduntasunari indarra
eman zion. Horrek diskurtsoa
eta praxia aldarazi zituen,
jende asko hasi zen euskara
ikasten. Euskararen balioa
handitu egin zen".*

tsoaren erdigunean kokatu zituen ETAK. Abertzaletasun berri bat ekarri zuen, arraza alboratu eta euskalduntasuna naziotasunaren oinarrian jarri zuelako. Horrek diskurtsoa eta praxia aldarazi zituen, eta jende asko hasi zen euskaraz ikasten; euskararen balio sinbolikoa handitu zen. 60ko hamarkadan euskara erabiltzeko, ikasteko, modernizatzeko eta jendarteratzeko mobilizazio zabala jarri zen abian.

Langile mugimendurekin ere izan zuen harremana.

ETA garaiko gatazka sozialetatik elikatu zen aldi berean, langile mugimenduen sektore bati mentalitate bat eskaini zion: nazio askapena helburu zuen abertzaletasun akonfesional eta ezkertiar baten diskurtsoa. Mugimendu ezkertiarrek subjektu iraultzailatzat langile klasea hartzen zuten; ETAK nazio auzia lotu zion horri eta Euskal Langile Herria izendatu zuen subjektu iraultzaille. Bi mugimenduen artean gatazka batzuk sortu baziren ere, nazio askapena eta askapen soziala uztartu ahala, aurretik abertzaletasuna urruti sentitzen zuen langile asko hurbildu zen ETARA.

Horiekin batera, fronte militarra ere garatu zuen ETAK.

Lehen urteetan ekintza adarra deitzen zitzaion eta gero fronte militarra. Frankismoaren errepresio bortitza gori-gori zegoela, herri-babesa eta harreman-sarea behar zituen ETAK abertzaletasun ekintzailea gauzatzeko: ikurrinak jarri, propaganda zabaltzeko, helburu zehatz baten kontrako ekintzaren bat... Hori egiteko herriaren zati garrantzitsu baten babesa izan zuela uste dugu. Bere estrategiak onarpen sozial handi samarra zeukala ondorioztatu dugu, jendearen arabera Francoren aurka egiteko bide eraginkorra eta bidezkoa zelako.

Hiru fronte horien baturak ondorioz izan zuen abertzaletasunaren susperraldian?

Handia. 1964tik aurrera masa abertzaletasunak gorakada izan zuen, eta ez ETAREN inguruan soilik. EAJ, Enbata eta halako erakundeek ere egin zuten gora, euskal jaiak sortu zituzten, dantza... Lehen ezkutuan zegoen abertzaletasuna kaleratzen hasi zen pixkanaka.

Emakumezkoek zein toki zuten garaiko ETAn?

Subjektu aktiboak izan ziren. Bereziki, kulturaren esparruan hartu zuten parte emakumeek, ikastoletan eta beste. Gainera, erakundeko erabakiguneetan ere bazebiltzan batzuk, nahiz eta gutxi batzuk izan.

Nola artikulatu ziren Ipar eta Hego Euskal Herriko abertzaleak?

Batetik, Hego Euskal Herriko abertzaletasunaren gorakadak olatu gisa jotatu zuen Ipar Euskal Herriko abertzaletzat. Gainera, mugaren bi aldeetako abertzaleen artean elkarreragina izan zuen. Gero, erakundeko kide asko Ipar Euskal Herrian gorde izanak aire berriak ekarri zituzkien; han edan zuten filosofo frantziar ezkertiarren iturritik.

Zein ondorio nagusi ateratu duzu?

ETAREN abertzaletasun berria Euskal Herriko tren makina martxan jartzeko ikatza izan zen. Elkarriketetan, zenbaitek esan du gizartea lozorroetik berpizteko balio izan zuela. Euskal Herriko gizartearen zatirik handienean eragina izan zuen lurrikara izan zen. ■



Kevin Spacey izango da Espainiako fiskal nagusia Kataluniakoaren hurrengo denboraldian

Adin txikikoez abusatzeagatik 'House of cards' telesailetik kanporatua izan ostean, Kevin Spacey aktoreak badauka enplegu berria: Espainiako fiskal nagusi izatea eskaini diote, lan horretarako "perfil oso aproposa" daukela argudiatuta. Spaceyk izan ditu beste eskaintza ba-

tzuk ere, hala nola, Donostiako gotzain izatea, baina bere agenteak dioenez ez zuen "beti pertsonaia bera jokatu nahi". Honenbestez, aurki hasiko den denboraldian independentistak kartzelaratzeko arituko da. "Lan zikinenak hartzen ditut beti", baieztatu dio Beranduegiri.

SAREAN ARRANTZATUA

ADI! Donald Trump aurkitu dute txakur baten belarrian



Aberria ala speed! Atsedetik ez, drogarik gabe!

(El Jueves-ekin elkertasunez)



Hegoaldekoen mendekua: Maulen gipuzkeraz bertso-kantari

"Bai, bai, mezu ofiziala lurraldetasunaren kontua eta hori guztia da, baina finalerdi bat Maulera eramatearen benetako arrazoia mendekua besterik ez da", aitortu dio Beranduegiri Bertsozale Elkarteko iturri anonimo batek; "urte askoan engainatu gaituzte Hegoaldekoak pastoralez gozatzen joan gaituzten: 'ez düzü horren gaitza, untsa entelegatzen düzü bigarren orenetik aitzin...', bla bla bla, sei ordu zurezko aulki gogor batean eserita eta tutik ulertu ez!".

Kontraerasorako arma onena bertsolaritzan aurkitu dute hegoaldetar gaixoei. "Lortu dugu zuberotarrek konbentzitzea sekula entendituko ez duten jarioa lau orduz jasaten egoteko, errugbi partidua ikusten goxo-goxo egon beharrean, kar kar". Larunbateko saio amaierako txalo zaparradaren arrazoia, puntako analisten arabera, tortura amaitu izana izan zen. Diotenez, Hegoalde osoan antzetzutako den Alaia Martini buruzko pastorala idazten hasiak dira zuberotar batzuk, akzio-errepresio-akzio logika zaharrari jarraiki.



Indigenekin konektatu nahian, bertso-saiorako arropa ere tentuz aukeratu zuten zenbait bertsolarik.



**INDARTU
DEZAGUN
INDARTZEN
GAITUENA**

Egin ARGIAkoa!

**Eman eta jaso
nahi duzun neurrian**

argia.eus/eginargiakoa



ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com